



Tranbia Ibilbidea, 5
Posta kutxa. 73
20115 Astigarraga
Telefonoa: 943 57 35 86
Faxa: 943 57 35 90

ORIOKO UDALERRIAREN JARDUERA FISIKO ETA KIROLERAKO PLANAREN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA ONDORIOAK

IFK: B-20492070 Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa, 49 Liburutia, Atal orokorra, 65. orria V.a, 536 Idazpena



emakumeen eta gizonen arteko
aukera berdintasunaren aldeko
erakunde laguntzailea



entidad colaboradora
en igualdad de oportunidades
entre mujeres y hombres



AURKIBIDEA

SARRERA	2
----------------------	----------

1º ATALA: AZTERKETA

LEKUKO KIROL SISTEMAREN AZTERKETA	3
I. AZTERKETA DEMOGRAFIKOA	4
II. KIROL INSTALAZIOEN AZTERKETA	9
III. UDAL KIROL ZERBITZUAREN AZTERKETA	16
IV. KIROL ERAGILEEN AZTERKETA	31
• Eskola Kirola	31
• Kirol Klubak	45
V. AZTERKETA EKONOMIKOA	62

2º ATALA: DIAGNOSTIKOA

LEKUKO KIROL SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA	65
I. DEMOGRAFIA DIAGNOSTIKOA	66
II. KIROL INSTALAKUNTZEN DIAGNOSTIKOA	67
III. UDAL KIROL ZERBITZUAREN DIAGNOSTIKOA	69
IV. KIROL ERAGILEEN DIAGNOSTIKOA	72
• Eskola Kirola	72
• Kirol Klubak	76
V. DIAGNOSTIKO EKONOMIKOA	81

3º ATALA: ONDORIOAK

ONDORIOAK	85
-----------------	----

SARRERA

Kirol arloan inolako esku-hartzerik egin aurretik, emaitzetan eta ezartzen diren helburuetan eragina izan dezaketen faktoreak aztertu behar dira. Normalean, faktore horiek guztiek zehar-lerro moduan jokatzeko dute edozein kirol sistemaren bilakaeran.

Hori dela eta, ezinbestekoa da udalerriaren benetako egoera zein den aztertzea, demografia, ekonomia, zerbitzuak emateko baliabide (baliabide materialak edo giza baliabideak) eta abarri dagokionez, era horretan jakingo baitugu zer-nolakoa den esku hartuko den esparrua.

Helburu horrekin lan egingo da fase honetan; kirol sistema bat definitzeko edo aldatzeko eragina izan dezaketen faktoreak aztertuko dira.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Udal Kirol Zerbitzuari, bai eta ikastetxeei, kirol klubei, kirol enpresei eta beste kirol eragile batzuei ere. Mila esker.

1º ATALA: AZTERKETA

LEKUKO KIROL SISTEMAREN AZTERKETA

I.- AZTERKETA DEMOGRAFIKOA

Lehenik eta behin herri baten demografia aztertu behar da, elementu giltzarria baita abiapuntua ezartzeko. Egungo egoera zein den jakiteak ahalbidetuko digu herrian kirolak izan dezakeen etorkizunaren gaineko diagnostikoa egitea.

Horren harira, egiaztatuta geratu da Orioko udalerria egitura-aldaketa prozesu batean murgilduta dagoela, eragina izango duena profil demografikoan, gizarte osaeran eta biztanleen banaketa geografikoan. Aldaketa horiek eragina izango lukete kirol jardueraren bat egin lezaketen herritar taldeen kopuruan.

1. BIZTANLERIARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Orioko udalerriak 6.062 biztanle zituen 2022ko urtarrilaren 1ean, Errola Jarraituaren arabera.


2. ESKUALDEAREN INGURU GEOGRAFIKOA ETA DEMOGRAFIA

ESKUALDEKO UDALERRIAK	BIZTANLEAK
ZARAUTZ	23.101
AIA	2.094
USURBIL	6.166
GETARIA	2.825

3. ORIOKO UDALERRIAREN DENTSITATEA

	BIZTANLEAK	AZALERA	DENTSITATEA
GIPUZKOA	714.529	1.980 Km2	360,87
ORIO	6.062	9,81 Km2	617,94

4. BANAKETA DEMOGRAFIKOA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala
2021ko Udal Errolda

5. BIZTANLERIAREN DATUAK ADIN TALDEEN ARABERA (BOST URTEKO MULTZOAK)

Orioko biztanleria sexuaren eta adinaren arabera 2022 (bost urteko taldeak)			
Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0-5	147	117	264
5-10	162	156	318
10-15	206	201	407
15-20	191	161	352
20-25	139	152	291
25-30	148	138	286
30-35	150	146	296
35-40	192	205	397
40-45	225	266	491
45-50	306	281	587
50-55	258	238	496
55-60	227	229	456
60-65	196	176	372
65-70	140	143	283
70-75	128	130	258
75-80	115	112	227
80-85	49	65	114
85-	61	106	167
Guztira	3.040	3.022	6.062


Iturria: Estatistika Institutu Nazionala
2022ko Udal Errolda

6. BIZTANLERIAK AZKEN URTEETAN IZAN DUEN BILAKAERARI BURUZKO DATUAK

Biztanleriak azken sei urteotan izan duen bilakaera:

ORIO	GIZONAK						
	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016
	3.040	3.045	3.058	3.020	2.998	2.949	2.948
	EMAKUMEAK						
	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016
	3.022	3.051	3.033	3.002	2.950	2.908	2.903
	GUZTIRA						
	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016
	6.062	6.096	6.091	6.022	5.948	5.857	5.851

Iturria: INE



7. BIZTANLERIAK DATOZEN URTEETAN IZANGO DUEN BILAKAERARI BURUZKO DATUAK

2016-2022 urteen artean biztanleria urtean % 3,6 hazi zen batez beste, baina epe laburreko aurreikuspenak adierazten du biztanleria % 2,06 igoko dela datozen 8 urteetan, egungo joera demografikoak jarraitzen badu. Era horretan, 2022tik aurrera heriotza kopuruak jaiotza kopurua gainditu egingo badu ere migrazio-saldoak konpentsatu egingo du (Iturria: INE-Biztanleriaren aurreikuspena epe laburrera 2020-2028).

Orioko biztanleria hazkundearen datuak proiektatzen badira 2030era, haxe da bilakaera demografikoa:

URTEAK	BIZTANLERIA	ERLATIBOA(%)
2023	6075	0,21
2024	6088	0,21
2025	6100	0,19
2026	6112	0,20
2027	6126	0,23
2028	6143	0,27
2029	6163	0,33
2030	6187	0,40

8. UDALAREN KIROL ZERBITZUAREN BAZKIDEEI BURUZKO DATU HISTORIKOAK

URTEAK:	BAZKIDEAK
2017	1840
2018	1822
2019	1857
2020	1696
2021	1389
2022	1492

9. KIROL ZERBITZUAREN BARNERATZE INDIZEA BIZTANLEEKIKO

Azterketa demografiko honetan, Orioko Udalaren kirol zerbitzuen bazkide izan diren herritarrei buruzko datuek erakusten dute zenbaterainokoa den Orioko herritarren parte-hartzea herriko kirol sisteman.

ORIOKO BIZTANLE KOPURUA	6.062	%
UDALAREN KIROL ZERBITZUAREN BAZKIDE ORIOTAR KOPURUA	1.492	24.61%

Gipuzkoan, biztanle kopuruari dagokionez Lezo da Oriori gehien gerturatzen zaion herria, 6.103 biztanlerekin eta lan guztian zehar bi herrien arteko alderaketak erabiliko ditugu datuak hobe islatu nahian:

LEZOKO BIZTANLE KOPURUA	6.103	%
UDALAREN KIROL ZERBITZUAREN BAZKIDE LEZOTAR KOPURUA	1.509	24.73%

10. ORIOKO UDALAREN KIROL ZERBITZUAREN BAZKIDEEI BURUZKO DATUAK

2023KO DATUAK	BAZKIDEAK	%
ORIO	1296	86.87
INGURUKOAK	196	13.13
TOTAL	1492	100.00

II.- KIROL INSTALAZIOEN AZTERKETA

Orioko kirol ekipamenduei buruzko datuen azterketa espezifikoa aurkezten dugu jarraian. Lan hau gauzatzeko, kontuan hartu dira, bai administrazio publikoen (Kirol Kontseilu Gorena, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Orioko Udala) instalazio erroldetako datuak, bai Kirol Managementeko teknikariek herriko kirol instalazioetara egin dituzten bisitetan bildutako datuak.

Komeni da argitzea kirol instalazioak aipatzen ditugunean kirol espazioez (kirol jarduera gauzatzen den gunek) eta espazio osagarriez (kirol jarduera gauzatzeko erabiltzen diren guneen osagarriak, hala nola aldagelak, biltegiak eta harmailak) ari garela.

Kirol Kontseilu Gorenak Kirol Instalazioen Errolda Nazionala egitean erabilitako nomenklatura eta metodologia aplikatu ditugu, eta kontuan hartu ditugu kirol espazioen oinarritzko ezaugarriak. Sailkapen hau erabili da:

- Kirol espazio konbentzionalak.
- Kirol espazio bereziak.
- Jarduera eremuak.
- Espazio osagarriak.

Kirol espazio konbentzionalak: Kirol egiteko eraikitako espazioak, tipologiairik ohikoenekoak. Arauzko sailkapenak dituzte ezarritako neurriekin, nahiz eta kasu guztietan bat ez etorri. Espazio konbentzionalak dira kirola egiteko ohiko espazioak, hauek besteak beste: kiroldegietako pistak, pilotalekuak, pabilioiak, futbol zelaia, igerilekuak, aretoak, atletismo pistak eta abar.

Kirol espazio bereziak: Kirola egiteko eraikitako espazioak, eta hori arautua egon daitekeen arren, mota bakoitzera egokitutako neurriak dituzte. Espazio espezifikokoak dira, eta normalean, desberdin banatuta egoten dira espazio eskakizunei erantzuteko. Espazio bereziak dira kirola egiteko ohiko espazioak, hauek besteak beste: golf zelaia, bizikleta bideak, tiro eremuak eta abar.

Jarduera eremuak: Hertsiki kirol espazioak ez direnak - hala nola naturako azpiegiturak edo gunek-, non kirol jarduerak egiten diren, hartarako egokitu direlako edo normalean hartarako erabiltzen direlako. Jarduera eremuak dira honako hauek, besteak beste: rokodromoak naturalak, espeleologia gunek, kirol portuak, aterpeak, aerodromoak eta abar.

Espazio osagarriak: kirol jarduera egitearekin zuzenean lotuta daude, batzuk orokorrak dira instalazio mota guztietan, hala nola aldagelak, kirol materiala gordetzeko biltegiak, harmailak edo komun publikoak.

Orioko kirol instalazioen eta kirol espazioen azterketa eta analisia egiteko, kontuan hartu dira Kirol Kontseilu Gorenak berak erabilitako itemak; honako hauek dira, erreferentzia moduan:

- Espazioen tipologia
- Kokapena
- Kudeaketa mota
- Erabiltzaile tipologia
- Erabiltzaile tipologia M2ka
- Ur lamina
- Artapen egoera

1. KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO DATUAK

Taula honetan, administrazio makroegiturekiko testuinguruan ikus daiteke Orio.

	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira
Euskal Autonomia Erkidegoa	4.635	10.616	10.781
Araba	1.119	2.149	1.725
Gipuzkoa	1.644	3.908	3.669
Bizkaia	1.855	4.557	5.836
ORIO	21	50	41

2. UDALERRIK MUGAKIDEEN KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO DATUAK

Inguruko herriekin alderatuz, datu hauek ikus daitezke:

Udalerrria	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira
Orio	21	50	41
Zarautz	46	145	121
Aia	13	21	18
Getaria	14	24	21
Usurbil	17	34	45

3. BIZTANLE KOPURU ANTZEKOA DUTEN GIPUZKOAKO UDALERRIEN KIROL ESPAZIO, INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO DATUAK

Azkenik, biztanle kopurua antzekoa duten Udalerriekin alderatuz, datu hauek bildu ditugu:

Udalerria	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira	Biztanleak
Usurbil	17	34	45	6.173
Lezo	11	29	43	6.103
Orio	21	50	41	6.062
Billabona	13	30	10	5.876
Deba	26	39	44	5.460

4. KIROL ESPAZIOEN TIPOLOGIA

Orioko udalerrian 50 kirol espazio daude kirola egiteko; horietatik 41 ohiko espazioak dira (21 instalaziotan daude), 3 kirol espazio bereziak eta 6 jarduera eremuak.

Gainera, 41 espazio osagarri daude, espazio bakoitzean kirola egiteko eskaintzen den zerbitzuaren lagungarri direnak.

5. KIROL ESPAZIOEN RATIOAK BIZTANLE KOPURUAREKIKO

Orioko udalerrian 8,25 kirol espazio daude 1.000 biztanleko, eta espazio osagarrien batez bestekoa zertxobait txikiagoa da (6,76).


Ratioa 1.000 biztanleko	Instalazioak guztira	Kirol espazioak guztira	Espazio osagarriak guztira
Orio	3,46	8,25	6,76
Ingurua ¹	2,62	6,58	5,97

¹ Zarautz, Aia, Getaria eta Usurbil herriak hartu dira erreferentzia modura datuak alderatzeko.

6. KIROL ESPAZIOEN KOKAPENA

Kirol espazioen beste alderdi adierazgarri bat da udalerrian duten kokapena dela eta, beren eragin eremuaren barruan biztanleen gehiengoa dago.

Udalaren kirol instalazio nagusiek osatzen duten eremuaren mugek herrigunea hartzen dute gehienbat, eta, beraz, instalazio horietara sartzeko denborazko bihurguneak ezarritako parametroen barruan daude: 1.000 metrora arteko zerbitzu erradioa, oinez 15 minutuko sarbidea duena.




7. KIROL ESPAZIOEN KUDEAKETA MOTAK

Kirol espazio guztien kudeaketa zuzena da Udal Kirol Zerbitzuaren aldetik, Karela Kiroldegiaren kasuan izan ezik. Karela Kiroldegiaren kudeaketa osoa BPX enpresak egiten du.


8. KIROL ESPAZIOEN ERABILTZAILE TIPOLOGIA

Kirol espazioak aztertzean, kontuan hartu behar den beste alderdietako bat da nork erabiltzen dituen espazio horiek.



9. KIROL ESPAZIOEN ERABILERA TIPOLOGIA M2KA

Kirol espazio batek nork erabili dezakeen begiratzeaz gain, espazio hiroek zenbat M2 dituen begiratu behar da. Honakoan, espazio horiek normalean nork erabiltzen dituen hartu dugu kontuan, jakinda, abonatuak federatuak erabiltzen dituzten espazioak alokatu ditzaketela federatuak erabiltzen ez dituztenean. Beraz, abonatuak erabili ditzaketen M2 kopurua handiagoa da normalean erabiltzen dituenak baino. Hemen normalean nork erabiltzen duen aztertu dugu.



Oriok, bere medio naturalak eskaintzen dizkion 23 Km seinaleztatutako bideez gain, 17.837M2 ditu bere kirol espazioetan.

Horietatik, 3.180M2 sarrera librea dute, horrela edonork edozein momentutan erabili ditzakeelarik. Besteak beste, herrian dauden parkeetako kantzak, parke osasungarria, skate pista,...


Espazio libre hauetako batzuk, ikastetxeetan bertan kokatuak daude eta ikastetxeetako beste espazio itxi batzuekin batera (gimnasioak, erabilera anitzeko espazioak,...) eskola umeei kirol jarduera ezberdinak praktikatzeko erabiltzen dituzten M2ak dira, guztira 3.922M2.

Hauetaz gain, sarrera kontrolatua duten espazio itxiak ditugu. Orokorrean federatuek eta udal kirol zerbitzuko abonatuak erabiltzen dituztenak. Federatuek, futbol zelaia, kiroldegiko kantsa, igerilekua, arraunketa zentroa eta udal frontoia erabiltzen dituzte normalean, horiek guztiak 6.255M2 dituztelarik. Abonatuak aldiz, igerilekuak, kiroldegiko erabilera ezberdineko gelak, paddela pistak, tenis pistak eta federatuek erabiltzen dituzten espazioak libre daudenean alokatzeko aukera dute eskura. Beraz esan dezakegu, egunerokoan 3.210 M2 erabilgarri duten arren, libre daudenean alokatu ezker 6.855 M2 dituzte eskura herrian.

10. UR LAMINA

Oriok bi igerileku ditu estaliak, guztira ur laminak 310m2 dituelarik. 6.062 biztanle dituela kontuan harturik, 19,55perts/m2-ko ditu herriak edota 0,051 m2/pertsonako.

Gipuzkoak 0.022 m2/pertsonako ditu, beraz, datuak alderatuz Oriok ur lamina gehiago du. Eta NIDE 2021 araudiaren arabera, Orioko biztanleriaren eta klimaren arabera, gutxienez 0,04 m2/pertsonako izatea gomendatzen du, hortaz, zifra hau ere hobetzen du.



11. KIROL ESPAZIOEN ARTAPEN EGOERA

Espazioen egoerari dagokionez, egindako bisitan ikusitakoarengatik, kirol espazioen artapen egoera ona da.

Estrukturei dagokienez denak ondo mantenduak daude, kirol instalazio berrien estrukturak oso ondo izanik, Arraunketa zentroa adibidez.

Kirol espazioen zoladurak ere, orokorrean ondo eta egokiak dira bertan praktikatzen den jarduera fisikorako. Arriskutsuena, Xaloa parkeko mahai teniseko mahaien guneko zoladura litzake.

Era berean, kirol instalakuntzek argiztapen egokia dute, horrela gaueko erabilera ere ahalbidetzen delarik.

Bestalde, desgaituek kirol espazioetan sartzeko sarbidea egokitua dute. Bai igerilekura eta bai kiroldegiko hamailetara ere. Honetaz gain, Mendibeltz futbol zelaian harmailetara igotzea ezinezkoa dute, partiduak zelai mailan ikusi behar dutelarik.

Azkenik, kirol espazioetan dauden aldagelak eta komunak egokiak dira kantitateari dagokionez, baina hauetariko batzuk zaharkituak daude artapenari dagokienez.

III.- UDAL KIROL ZERBITZUAREN AZTERKETA

1. KUDEAKETA MOTA

Orioko Udalerriak, gaur egun, organo espezializatu bat du, Udal Kirol Zerbitzua, tokiko kirol zerbitzuak zuzenean kudeatzen dituen.

Udal Kirol Zerbitzuak ez du berezko nortasun juridikorik eta atal bat dauka udalaren aurrekontuan.

Udal Kirol Zerbitzuaren babespean dauden instalazioak eta ekipamenduak Orioko Udalaren ondare dira.

Plantillari dagokionez, pertsona bat Udal plantillakoa da eta gainerako giza baliabideak kanporatuta daude.

2. EGITURAK

a. UDAL ANTOLAKUNTZAREN EGITURA

Udal antolakuntza 3 batzordetan dago banatuta:

- Tokiko garapena
- Herritarrentzako zerbitzuak
- Barne antolaketa

Antolakuntza honen funtzionamendurako karguak honako hauek dira:

KARGU POLITIKOAK	Izen-abizenak
Alkatea (EH Bildu)	Anuska Esnal Oliden
Alkateordeak (EH Bildu)	Olatz Santamaria Bereziartia Xabier Ibarguren Azkue
EH Bilduko zinegotziak	Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea
EAJko zinegotziak	Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Jon Basurko Sarasua

Guztira Udalbatzako kide politikoak: 13

Gizonezkoak: % 46,15

Emakumezkoak: % 53,85

b. KIROL ZERBITZUAREN EGITURAK

Orioko Udal Kirol Zerbitzua atal batean dago egituratuta:

- KIROLA ETA GAZTERIA SAILA

b.1- UDAL KIROL ZERBITZUA (UKZ)

A) FUNTZIONAMENDURAKO KARGUAK: Udal Kirol Zerbitzuaren funtzionamendurako ezarritako karguak, nagusiki, honako taula honetan deskribatzen dira:

Kudeaketa esparrua	ARDURADUN POLITIKOAK	ARDURADUN TEKNIKOAK
Herritarrentzako zerbitzuak	Anuska Esnal Oliden Ainara Munduate Iguaran Xabier Ibarguren Azkue Bittor Andres Alkorta Iosu Lizarralde Ibarbia Noemi Ostolaza Arkauz Lourdes Salsamendi Goñi Jon Basurko Sarasua	Julen Idarreta

- Arduradun politikoak: 8 (5 Bildu + 3 EAJ)
- Teknikaria: 1
- Osaketa: gizonezkoak (% 50) eta emakumezkoak (50%)

B) ANTOLAKETA (UKZ)

B.1.- LANGILE KOPURUA:

UKZren kudeaketarako Udalak kontratatutako langile kopurua: langile 1 (%100 lanaldian)

B.2.- AZPIKONTRATATUKO ZERBITZUAK:

BPXport XXI SLrekin azpikontratutako zerbitzuak Karela Kiroldegiaren kudeaketa integrala eta futbol-zelaiaren, frontoiaren eta Arraunetxeren garbiketa eta mantentze-lanak dira.

Kastore Gest SLk (Begi Bistan) aisialdiko eta turismo aktiboko zerbitzuak eskaintzen ditu Arraunetxan.

Ez dira beste hornitzaile nagusiak identifikatu, ezta horiek kontrolatzeko sistematika ere.

B.3.- ANTOLAKETA-FUNTZIONALA

Udal Kirol Zerbitzuaren kudeaketa langile bakar baten ardurapean dago. Bere lan esparru gainetik ordezkari politiko dago.

B.3.1- Instalazioen/ azpiegituren eremua:

Udal Kirol Zerbitzua BPXport XXIekiko harremanez arduratzen da. Karela Kiroldegia kudeaketa integralerako eta futbol zelaiaren, frontoiaren eta Arraunetxeren garbiketa eta mantentze lanetarako azpikontratutako zerbitzuen enpresa emakidaduna. Udal Kirol Zerbitzuak zuzenean kudeatzen ditu Arraunetxe, futbol zelaia eta pilotalekua, baita aire zabaleko kirol guneen sustapena eta hornidura ere. Ildo horretatik, Arraunetxeren Kastore Gest SL (Begi Bistan) enpresari lagatzen dio alokairuan.

Udal Kirol Zerbitzuak kirol instalazioen hornidura, gastu eta beharrak kudeatzen ditu. Kirol instalazioen erabilerari dagokionez, honako akordio hauek daude:

- Orioko Udalaren eta Aiako Udalaren arteko akordioa, Karela Kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeko.
- Orioko Udalaren eta Getariako Udalaren arteko akordioa, futbol-zelaia erabiltzeko.
- Orioko Udalaren eta Euskadiko Piraguismo Federazioaren arteko akordioa Arraunetxea erabiltzeko.
- Orioko Udalaren eta Orioko Futbol Taldearen eta Orioko Bate Bizkorren arteko akordioa, futbol-zelaia erabiltzeko.
- Orioko Udalaren eta Ospele Kirol Klubaren arteko akordioa frontoia erabiltzeko.

B.3.2- Arlo teknikoa:

Udal Kirol Zerbitzuaren langileak kudeatzen dituen arlo nagusienak hauek dira:

- Udalaren kirol politikan eragina izan dezaketen arloak/alderdiak proposatzea.
- Dirulaguntzen administrazio izapideak eta kudeaketa integrala: kirol klubaren jardura arrunta eta ez arrunta, instalazioen erabilera, kirol klubaren erabilera, tokiko kirol jarduerak eta ekitaldiak, ikastetxeen eskola kirola, GFA eta beste dirulaguntza batzuk.

- Tokiko kirol ekitaldiak: espedienteak izapidetzea, web orriko agenda elikatzea, baliabideak kudeatzea, etab.
- Idazkaritza lanak kirol batzordean.
- Gainerako Udal arloekin koordinatzea.
- Herritarren Kiroletako Udal Arloan eta beste erakunde batzuetan jasotako espediente guztien tramitazioa kudeatzea.

B.3.3- Arlo ekonomikoa:

Udal ordezkari politikoek onartutako aurrekontua kudeatzeko ardura du eta horri dagokion izapidetza administratiboa; kontratu txikien alta eskaera, fakturen jarraipena e.a.

B.3.4.- Langileen arloa:

Udal Kirol Zerbitzua udal langile bakarrez osatuta dago %100 lanaldian. Egiten dituen funtzioak teknikoak, kirol kudeaketakoak eta administraziokoak dira

B.3.5.- Administrazio arloa:

Kirol zerbitzuko teknikaria arduratuko da arlo teknikoan aipatutako gaiek sortzen duten administrazio prozedura guztia egiteaz, idazkaritzaren/kontuhartzaitzaren arlora iritsi arte.

c. KIROL ZERBITZUAK PARTE HARTZEN DUEN BESTE EGITURA BATZUK:

Ez da berariazko eztabaida-egitura edo fororik identifikatu, ez kirol klubekin, ez ikastetxeekin (eskola kirola).

Orioko Udala kirol klubekin bildu da udalaren dirulaguntzak aurkeztu eta azaltzeko.

3. PLANGINTZA (UDAL KIROL ZERBITZUA)


Ez dago jasota tokiko kirol-plangintzarik dagoenik, ezta misioa, ikuspegia, balioak eta helburuak jasotzen dituen kudeaketa-sistematik ere.

4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Udal Kirol Zerbitzuaren baliabide ekonomikoak aztertzeko, udalerriaren 2022ko aurrekontuaren datuak erabili dira.


a. GASTUEN AZTERKETA

- Udal Kirol Zerbitzuaren gastu aurrekontua 2022rako 625.937 €-koa, eta honela banatzen da ehunekoetan:



b. SARREREN AZTERKETA

- Udal Kirol Zerbitzuaren sarrera aurrekontua 2022rako 33.520 €-koa da, eta kontu-sail hauetan banatzen da ehunekoetan:



Beste batzuei dagokien partida ekonomikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza da (6.000 €), eskola kirolari eta beste diru sarrera batzuei dagokiena.

5. BAZKIDEAK, IKASTAROETAKO IKASLEAK ETA ZERBITZUEN ERABILERA


a. BAZKIDEEI BURUZKO DATUAK

Udal Kirol Zerbitzuak 1.492 bazkide ditu guztira, eta honela banatzen dira generoaren arabera:

GUZTIRA	1.492	%
GIZONEZKOAK	780	% 52,27
EMAKUMEZKOAK	712	% 47,73

Bazkideak adin multzoka banatuz gero, honela geratzen da:


b. IKASTAROETAKO IKASLEEI BURUZKO DATUAK



Udal Kirol Zerbitzuak 1570 ikaslek hartu dute parte guztira urte guztian zehar egindako ikastaro guztietan, kontuan izanda pertsona batek ikastaro batean baino gehiagotan parte hartu dezakeela eta honela banatzen dira generoaren arabera:

GUZTIRA	1570	%
GIZONEZKOAK	662	% 42,14
EMAKUMEZKOAK	908	% 57,86

Pertsona hauek Udal Kirol Zerbitzuko kide izaten diren denborari dagokionez, datu hauek nabarmendu behar dira:



c. ZERBITZUEN ERABILERA

Udal Kirol zerbitzuen erabilera kopurua guztira 62.212 izan zen 2022. urtean.

Datu hori bazkideetara eramaten bada, bazkide bakoitzak, batez beste, 41,70 erabilera izaten ditu urtean, 0,80 erabilera/astean.

6. ZERBITZU ESKAINTZA

Udal Kirol Zerbitzuak eskaintza berbera egiten du, nola bazkideentzat hala aldian behin erabiltzen dutenentzat. Baina bazkideek onura ekonomikoak dituzte, eta ezaugarri hauek dituzten beste onura batzuk:

- Igerilekura eta gimnasia sartzeko eta nahi beste erabiltzeko aukera.
- Espazio osagarriak erabiltzeko aukera, hala nola aldagelak, komunak...
- Kirola egiteko pistak alokatu: pilotalekua, squash-a, mahai tenisa, pista...
- Izena emateko lehentasuna Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ikastaroetan.


Eskaintza aztertzeko, zerbitzuak tipologiaren arabera banatu dira:


a. ERABILERA LIBREKO ZERBITZUAK:

- ZERBITZUAK GUNE LEHORREAN: Kirol espazio hauek eta osagarriak erabiltzeko aukera:
 - Gimnasioa
 - Rokodromoa
 - Solariuma
 - Erabilera ezberdinetako gelak
 - Aldagelak
- ZERBITZUAK URETAN: Uretako gune hauek eta osagarriak erabiltzeko aukera:
 - Igerilekuak
 - Saunak


b. ZERBITZU ETA JARDUERA GIDATUAK:

- ZERBITZUAK GUNE LEHORREAN: Guztira, gidatutako jardueren 30 ordu eta 10 minutu ematen dira astean lehorrean, talde hauetan:
 - PILATES: 5´ ordu / astean
 - YOGA: 1´ ordu / astean
 - MANTENTZE GIMNASIA: 1´40´´ ordu / astean
 - SPINNING: 4´10´´ ordu / astean
 - CORE: 1´ ordu / astean
 - TOTAL TRAINING: 1´40´´ ordu / astean
 - AEROBIK: 2´30´´ ordu / astean
 - TONO OSASUNA: 2´30´´ ordu / astean
 - AQUAEROBIK: 1´40´´ ordu / astean





- ZERBITZUAK URETAN: Guztira, gidatutako jardueren 17 ordu eta 15 minutu ematen dira astean uretan:
 - HAURREN IGERIKETA: 4'30'' ordu / astean
 - HELDUEN IGERIKETA: 1'30'' ordu / astean
 - IGERIKETA TEKNIFIKAZIOA: 11'25'' ordu / astean



c. KIROL ESPAZIOEN ALOKAIRUA:

Kirol espazioak alokatzeko aukera.

- Rokodromoa
- Kantxa
- Igerilekuko kalea
- Igerileku txikia
- Tatami gela
- Aerobik gela
- Udal pilotalekua
- Mendibeltz futbol zelaia
- Tenis pista
- Paddle pista

d. KIROL KANPAINAK:

- **NEGUKO KANPAINA:**
 - Hiruhileko ikastaroak
- **UDA KANPAINA:**
 - Udaleku Kirolanitzak - UDA SASOIAN
 - Helduen Ikastaroak
- **"XPRESS" ETA MASTERCLASS SAIOAK:**
 - Urtean zehar ematen diren saio bereziak
- **JARDUERA ETA EKIMEN BEREZIAK**
 - BPXPORT Erronkak
 - Iñauterietako Mozorro Lehiaketa
 - Bularreko Minbiziaren Aurkako Eguna
 - Woman Fit
 - Halloween
 - Gabonetako Apaingarri Lehiaketa
- **TXALUPAN KANPAINA:** Haur zaurgarrirei kirol ekintzak doan.

7. ZERBITZUAK EMATEKO ORDUTEGIA

Udal Kirol Zerbitzuak 2 esparruetan ematen ditu zerbitzuak, ordutegi honetan:

IGERILEKUKO ORDUTEGIA: Urtarrilaren 1etik abuztuaren 13ra eta abuztuaren 28tik abenduaren 31ra; udan 64 ordu/astean irekita eta neguan 71 ordu/astean irekita.

Udan:

- *Astelehenetik ostiralera:* 7:00-12:30 eta 15:30-21:00 (11 ordu)
- *Larunbatetan eta igandeetan:* 09:00-13:30 (4,5 ordu)

Neguan:

- *Astelehenetik ostiralera:* 7:00-12:00 eta 14:30-21:00 (11,5 ordu)
- *Larunbatetan:* 7:00-12:30 eta 15:00-19:30 (10 ordu)
- *Igandeetan:* 09:00-12:30 (3,5 ordu)

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA: Urtarrilaren 1etik abuztuaren 13ra eta abuztuaren 28tik abenduaren 31ra; udan 72,5 ordu/astean irekita eta neguan 78 ordu/astean irekita.

Udan:

- *Astelehenetik ostiralera:* 7:00-13:00 eta 15:30-22:00 (12,5 ordu)
- *Larunbatetan eta igandeetan:* 09:00-14:00 (5 ordu)

Neguan:

- *Astelehenetik ostiralera:* 7:00-12:30 eta 14:30-22:00 (13 ordu)
- *Larunbatetan:* 9:00-13:00 eta 15:00-20:00 (9 ordu)
- *Igandeetan:* 09:00-13:00 (4 ordu)

8. PREZIOAK ETA TASA PUBLIKOAK

Kirol espazioak eta zerbitzuak erabiltzeagatik ordaintzen diren prezioak eta tasa publikoak honela banakatu ditugu:

a. URTEKO BAZKIDE TXARTELAK:

Mota hauek daude:

1. BANAKAKO TXARTELAK: Tipologia honen barnean multzo hauek daude:

- Heldua
- Gaztea
- Haurrak eta +65
- Gaztea, Aita edo Ama abonatua
- Gaztea, Aita eta Ama abonatua
- Haurra, Aita edo Ama abonatua
- Haurra, Aita eta Ama abonatua

b. ALDIAN BEHINGO ERABILERAK:

1. BANAKAKO TXARTELAK:

- Heldua
- Gaztea
- Haurrak eta +65
- Duxa Sarrera

2. 10 SARRERAKO BONOIA:

- Heldua
- Gaztea
- Haurrak eta +65

3. 15 EGUNEKO BONOIA:

- Heldua
- Gaztea
- Haurrak eta +65

4. HILABETEKO BONOIA:

- Heldua
- Gaztea
- Haurrak eta +65

c. KANTXEN ALOKAIRUA:

- Rokodromoa
- Kantxa
- Igerilekuko kalea
- Squash pista
- Tatami gela
- Aerobik gela
- Udal pilotalekua
- Mendibeltz futbol zelaia
- Tenis pista
- Paddle pista

d. IKASTAROEN/JARDUEREN TASAK:

Tasa hauek aldatu egiten dira, jardueren erabiltzaileak Udal Kirol Zerbitzuaren bazkide izan edo ez.

1. Igeriketa: nagusiak, gazteak, haurrak, haurtxoak...
2. Gimnasia eta deribatuak
3. Fit-bike eta deribatuak

e. KANPAINAK:

Neguko eta Udako kanpainetako jardueretan izen emateak bere kostua du. "Txalupan" kanpaina, "Xpress", Masterclass eta Jarduera eta Ekimen berezietan parte hartzea berriz doakoa da.

PREZIOEN ETA TASA PUBLIKOEN KONPARAZIO TAULA

Debako udalerriarekin alderatzen da, erreferentzia moduan, antzeko ezaugarriak baitituzte, bai biztanleriari bai eskaintzen dituzten kirol zerbitzuei dagokienez.

ZERBITZU MOTA	PREZIOAK - TASAK	
	ORIO	LEZO
ABONUAK		
BANAKAKO ABONU ESTANDARRA	295,20€	239€
BANAKAKO GAZTE ABONUA	235,20€	114€
HAURRAK ETA + 65 URTE	147,20€	114€

UNEAN UNEKO SARRERAK		
BANAKAKO ABONU ESTANDARRA	7,60€	5,54€
BANAKAKO GAZTE ABONUA	5,50€	2,98€
HAURRAK ETA + 65 URTE	3,60€	2,98€
BONOA: 10 SARRERA ESTANDAR	41,20€	36,14€
BONOA: 10 SARRERA GAZTEA	33,00€	19,25€
BONOA: 10 SARRERA +65 URTE	20,70€	19,25€
ALOKAIRUAK		
FRONTOIA	7,28€(argia)	11,12€
KIROL ANITZEKO PISTA	21,00€ - 27,20€ (argia)	32,77€
TENIS	4,90€ - 12,60€(ez sozi)	-
PADDLE	9,70€ - 17,40€(ez sozi)	-
FUTBOL ZELAIA	54,60€ - 65,52€ (argia)	58,50€
IKASTAROAK		
HELDUEN IGERIKETA	116,10€ – 149,30€	158,64€
PILATES (2 egun)	99,60€	158,64€
SPINNING (2egun)	99,60€	158,64€
TOTAL TRAINING (2egun)	99,60€	158,64€

9. INFORMAZIOA /KOMUNIKAZIOA

Udal Kirol Zerbitzuak erabiltzen dituen ohiko komunikazio bideak udalaren webgunea eta Karela Kiroldegian ematen den informazio pertsonala dira.

Gainera, beste baliabide batzuk ere erabiltzen dira, hala nola Udalaren buletina eta Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk-aren "Karkara" aldizkaria.

10. HITZARMENAK

Udalaren Kirol Zerbitzuak hitzarmen hauek kudeatzen ditu:

a. INTITUZIO PUBLIKOAK:

- Eusko Jaurlaritza: Mugiment ekimena / Kirol Txartela
- Orioko Ikastolarekin eta Zaragueta Herri Eskolarekin hitzarmenak ditu, eskola-kirola barne.

b. KANPOKO ERAKUNDEAK:

- Hitzarmena du Euskadiko Piraguismo Federazioarekin Arraunetxe erabiltzeko.

c. KIROL-KLUBAK ETA ELKARTEAK:

- Hitzarmen bat du Orio Arraunketa Elkartearekin urteko dirulaguntzetarako.
- Berdin-Berdinak Kirol Klubarekin hitzarmena du urteko dirulaguntzetarako.

11. BESTE FAKTORE BATZUK

Orioko Udalak honako plan hauek ditu:

- Hiri Mugikortasuneko Plan Orokorra.
- Berdintasun Plana.
- Euskara Plana.
- Energiako Plana.
- Ingurumen Plana.

Mugikortasunari dagokionez, ikastetxeek autobusak partekatu dituzte kirol-jarduerak egiteko joan-etorrietan.

Euskararekiko harremanean, planak kirol arloko jarduerak jasotzen ditu, jarduerak euskara hutsean garatzeko.

IV.- KIROL ERAGILEEN AZTERKETA

ESKOLA KIROLA

Azterketa hau egiteko erabili dugun informazioa hainbat iturritatik bildu dugu: alde batetik, elkarriazketa pertsonalak egin dizkiegu eskola kirolean partaide diren eragileei, ikastetxeetako koordinatzaileei galdetegiak bidali dizkiegu, bai eta guraso elkarteei ere, eta Udalaren Kirol Zerbitzuak emandako datuak erabili ditugu.

SARRERA

Denbora igaro ahala, Oriok bere sistema espezifikoa ezarri du, lurraldean dauden gainerakoetatik desberdina. Sistema hori, eskola kirolaren eskaintza eta antolakuntzarena, bere garaian udalerrian zeuden beharretara egokitu zen, eta oso gutxi aldatu da denboran zehar. Nolanahi ere, eskola kirolak lurraldean, eta beraz, udalerrian, izan duen bilakaera oso adierazgarria izan da azken hamarkadan. Modalitate batzuetan, ikastetxeak utzi egin dio erreferentzia izateari, kirol eskolak sortu eta arautu dira..., eta horrek guztiak ekarri du klubek pisu espezifiko handiagoa izatea.

1. ESPARRU ARAUEMAILEA

Eskola kirolari buruzko araudi espezifikoa egoteak, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai Gipuzkoan, ahalbidetu du eskola kirola garatzea azken 32 urteotan (1990ean onartu zen eskola kirolari buruzko dekretua).

Araudi honek kirol jardun eredu bat sorrarazi du, "Gipuzkoako eskola kiroleko eredua" deitu dena, eta hiru ataletan oinarritzen dena: esparru arauemailea, jardueren eskaintza eta jarduerak aurrera eramateko behar den antolakuntza egitura.

Gipuzkoako eskola kirola arau batzuen bidez definitzen da:

- 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena
- Uztailaren 1teko 125/2008 Dekretua, eskola kirolari buruzkoa.
- 40-133/2021 Foru Agindua, ekainaren 29koa, «Ikasleentzako kirol hastapen unitateei baimena ematearen prozedura orokorra eta saskibaloia, eskubaloia, futbol eta errugbiko hastapeneko unitateen araubide berezia» onesten dueña.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero argitaratzen duen Eskola Kiroleko Jardueren Programa eta programa horietan sartuta ez dauden jarduerak baimentzeko prozedurak.
- Programa horietan sartu gabeko lehiaketa jarduerak baimentzeko prozedurak.

Esparru arauemaile horren bidez arautzen da eskola kirola, eta ezartzen dira oinarritzko kontzeptuak, ezaugarri orokorrak eta beraren funtzioak. Era berean, ezartzen dira eskola kiroleko programetan parte hartzen duten eragileak eta bakoitzaren eginkizunak.

Oro har, hauek azpimarratzen dira:

- Eskola kirolaren helburu bereziki hezitzailea, prestatzailea (prestakuntza osoko baliabide moduan eta epe luzera begirako prestakuntza prozesu moduan).
- Udalaren eginkizun nagusia da ikastetxeekin eta Foru Aldundiarekin lankidetzan aritza urteko eskola kiroleko programa aurrera eramaten.

2. KIROL ESKAINTZA

Eskola kirolaren eskaintza Orion bi sail nagusitan bereiz daiteke: alde batetik, Ikastetxeek beraiek kudeatzen duten eskaintza Udalaren laguntzarekin, eta, bestetik, kirol elkarteek adin horietarako egiten duten eskaintza.

Ikastetxeek eta Udalak zuzenean kudeatzen duten eskaintzak ezaugarri hauek ditu:

- Kirol anitzeko eskaintza izatea. Hartara, jarduera honetan izena ematen duten eskola-umeak taldekako hainbat kirolean aritzen dira: futbola, saskibaloia, eskubaloia, errugbia eta banakako jarduera zehatzak: orientazioa, atletismoa, surfa, pelota...
- Eskaintza itxia da izena emateko aukerari dagokionez. Izen eman ezkerro jarduera guztietan parte hartu behar da.
- Bai aste barruko eta baita asteburuko jardunean, talde bakoitzaren arduradunak ikastetxeko ikasle ohiak izaten dira orokorrean baita guraso gutxi batzuk ere, prestakuntza gutxikoak, koordinatzaileak gainbegiratuta. Gainera, pertsona hauek boluntario lan egoeran daude.
- Ez dago jasota monitoreei zuzendutako prestakuntza saioak egin direnik.
- Eskaintza unibertsala izatea; hau da, udalerriko eskola ume guztiek izan behar dute aukera; kostua edozein familiak bere gain hartzeko modukoa da, eta, gainera, udalerriko ikasle guztiengana iristen da eskaintza ikastetxeen bidez.

Eskaintza hau zuzenean kudeatzen dute ikastetxeek eta Udalak. Beraz, jarraipen bat egiten da, monitoreak, kostuak eta instalazioak kudeatzen dira, informazioa ikastetxe bakoitzak hedatzen du.

Bestetik, **kirol elkarteen eskaintza dago**. Hor, ikasturte honetatik hasita, klubak beraiek dira beraien eskaintzaren informazioa zabaltzen dutenak eta GFAko aplikazioan izen emateak egiten dituztenak.

Hauek dira eskaintzaren ezaugarria nagusiak:

- Askatasunez hautatzeko kirol modalitateak, eta batez ere **banaka** aritzekoak: esku pilota, atletismoa,... Eta **taldeka** aritzekoak: Kirol eskolak.
- Jarduera bakoitzak bere baldintzak ditu asistentzia egunei dagokienez.
- Jarduera horietako teknikarien kualifikazioa jarduera bakoitzaren arabera da.
- Kostu ekonomikoa desberdina da. Gainera, kostu hori jarduera ematen duen kirol elkarteak kobratzen du zuzenean.

3. ANTOLAKUNTZA EGITURA

Orioko eskola kiroleko kudeaketa-egitura, izaera juridikorik gabeko parte hartze organo batek osatzen du, "Eskola kirol mahaia" deitzen da, eta estamentu hauek parte hartzen dute:

- Zarauzko udal ordezkaria (Zarauzko kirol teknikaria).
- Orioko, Zarautzeko, Getariako eta Aiako Ikastetxetako ordezkariak (eskola kiroleko koordinatzaileak, Orioko 2 eta denera 8 lagun).
- Zarautz Kirol Elkarteko ordezkaria.

Batzorde hau astean behin elkartzen da. Zama nagusia hartarako sorturiko jarraipen taldearen esku dago, eta talde horretan daude ikastetxeetako zortzi koordinatzaileak, ZKEko ordezkaria eta Zarauzko kirol teknikaria.

Aldi berean, batzorde honetan erabakitakoak Udalaren Kirol Zerbitzuak gainbegiratzen ditu.

4. ESKOLA KIROLAREKIN LOTURA DUTEN ERAGILEAK

3 eragile mota identifikatu dira, Orioko eskola kirolarekin lotura dutenak: Orioko Udala, ikastetxeak eta beren guraso elkarteak, eta kirol elkarteak.

a. UDALA

Udalaren egitekoa kirol arlo honetan funtsezkoa da, eta hauek dira mugarri nagusiak: herriko eskola kiroleko programa kudeatzeko diru laguntza, dagoen eskaintzaren komunikazioa eta instalazioak uztea programa abiarazteko.

b. IKASTETXEAK:

Ikastetxeen egiteko nagusia da ikasleen parte hartza sustatzea, hainbat kirol jarduera eskainita eta GFaren plataforma informatikoa erabiltzea izena emateko.

Horretaz gain, multikirolean dinamizatuko diren taldeen entrenatzaile/hezitzaileak bilatzeaz eta aukeratzeaz arduratzen da. Entrenatzaile/hezitzaile hauek ez dute kualifikazio teknikorik kirol arloan, ez dute prestakuntza espezifikorik jasotzen eskola kirolaren gainean, bakarrik beren eginkizuna azaltzen zaie ikasturte hasieran eta ez dute inolako ordainik jasotzen

Udalerriko bi ikastetxek parte hartzen dute eskola kirolean:

- ORIOKO IKASTOLA
- JUAN ZARAGUETA H.E.

Lehen hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetan 337 ikasle daude matrikulatuta. Honela daude banatuta ikasturteka:

Lehen hezkuntza	Neskak	Mutilak	Guztira
3.a	36	42	78
4.a	28	30	58
5.a	44	59	103
6.a	54	44	98
	162	175	337

Datu horiek ikastetxeen arabera banatuta ikus daitezke taula honetan:

IKASTETXEA	Ikasturtea	Guztira	Neskak	Mutilak
ORIOKO IKASTOLA	3	55	25	30
ORIOKO IKASTOLA	4	46	23	23
ORIOKO IKASTOLA	5	74	31	43
ORIOKO IKASTOLA	6	77	43	34
JUAN ZARAGUETA H.E.	3	23	11	12
JUAN ZARAGUETA H.E.	4	12	5	7
JUAN ZARAGUETA H.E.	5	29	13	16
JUAN ZARAGUETA H.E.	6	21	11	10

c. KIROL ELKARTEAK

Orioko F.T. eta Orio Eragin Eskubaloi Kluba dira udalerriko klub erreferenteak. Klub hauek laguntza teknikoa emateko prest egon arren, ZKE da laguntza teknikoaz arduratzen dena.

Era berean, talde kiroleko klub hauek eskaintzen duten kirol eskolez gain, batez ere banakako kirol jarduerak eskaintzen dira, hala nola atletismoa, esku pilota,... Jarduera horiek guztiak klubak kudeatzen ditu (monitoreak lotu, kuotak kobratu, lehiaketetara joan...).


Udalak lankidetzat hitzarmen bat dauka izenpetuta klub bakoitzarekin. Bakarrik Orio Arraun Elkarteko hitzarmenean eskola kirola aipatzen duena baina zehazten ez dituen zer eginkizun dauden egiteko.

5. ESKOLA KIROLAREN KUDEAKETARA ZUZENDUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Atal honetan agertzen dira 2022-2023 denboraldian eskola kiroleko programa garatzera zuzendutako baliabide ekonomikoak.

a. GASTUEN AZTERKETA

Eskola kiroleko programaren funtzionamendu gastuak 33.592,72 euro izan dira 2022-2023 denboraldian; hiru kontu sailetan banakatu dira, eta hauek dira bakoitzaren portzentajeak:




Aipatu behar da, gastu hauen barnean, ez direla kontabilizatu kirol instalazioen erabilerarekin lotura dutenak: erreserbak, garbiketa, mantentze-lana, sarbideen kontrola...

Era berean, ez dira aintzat hartu Kirol zerbitzuko langileen gastu proportzionalak, eskola kiroleko programak egoki funtziona dezan egiten duten lanari dagozkionak: kirol teknikaria, administrazioa eta abar.

a. SARREREN AZTERKETA

Eskola kiroleko programaren funtzionamendurako bildutako sarrerak guztira 33.592,72 euro izan dira 2022-2023 ikasturtean.

Finantzazioa bi kontzeptutan sailkatu da, eta hauek dira bakoitzaren portzentajeak sarrera guztietikiko:



Argitu behar da bi diru sarrera mota daudela; izan ere, udalak hitzarmenak ditu bi ikastetxeetan, eta horietan ez da zehazten eskola kirolerako zenbateko ekonomikoa.

6. ESKOLA KIROLAREN KUDEAKETARA ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK

a. **GIZA BALIABIDEAK** (Generoaren arabera banatuta. 43 guztira , 20 gizonezko eta 23 emakumezko).

- Ikastetxeetako koordinatzaileak: Bi koordinatzaileen profila teknikoa da, irakasle ikasketak eta heziketa fisikoaren espezialitatean.

Koordinatzaile hauen kontratazioa ez da modu berean egiten bi kasuetan. Orioko Ikastolako koordinatzailea, ikastetxeko irakaslea moduan kontratatua dago alde batetik eta Eskola Kiroleko koordinatzaile modura bestetik. Juan Zaraguetako koordinatzailea aldiz, guraso elkarteak kontratatua da eta eskola kiroleko programa aurrera eramatea da bere eginkizuna.

- Eskola kiroleko monitoreak: Eskola kiroleko monitoreen gehiengoak, 29, ez dute profil teknikorik, ikastetxeko ikasle ohiak eta oraindik beren ikasketak bukatu gabeak dituzten gazteak dira. 2 ikasle ohik, erdi mailako kiroleko gradua egiten ari dira.

Bestalde 8 guraso ere badaude, 2 kirol ikasketa eta prestakuntzarekin eta 6 kirolari ohiak, baina prestakuntzarik gabeak.

Azkenik, irakasle bat, futbol entrenatzaile tituluduna.

b. INSTALAZIOAK:

- Eskola kiroleko programa garatzeko erabiltzen diren instalazio guztiak Udalaren eta ikastetxeen jabetzakoak dira.
- Azpimarratu behar da ikastetxeetako kirol instalazioak asko erabiltzen direla.

7. PARTE-HARTZEA

Kirol eskaintzari buruzko puntuan aipatu den bezala, 2 eskaintza mota daude eskola kirolean: ikastetxeen eskaintza (ohiko eskola kirola), kirol elkarteen eskaintza (normalean banakako modalitateak).

Jarraian aurkezten diren parte-hartze datuak ohiko eskola kirolari buruzkoak dira; hau da, ikastetxeek zuzenean eskaintzen duten eskola kirolari buruzkoak. Gainerako kirol eskaintzen parte-hartzea ezin dugu aztertu, ez daukagu-eta haiei buruzko datu nominalik. Beraz, ahal dugun kasuetan, dauden entrenamendu taldeak aipatuko ditugu.

Honetaz gain, aipatu beharra dago Juan Zarageta H.E.k LH1 eta LH2 maileri zuzendutako Jolas Hezi programa eskaintzen duela 17 parte hartzaile dituenak; 6 neska eta 11 mutil.

a. IKASTETXEETAKO ESKOLA KIROLAREN PARTE-HARTZE DATUAK.



Eskola kiroleko eskaintza 2022-23 ikasturtean nagusiki 4 modalitatetara bideratua dago: futbola, eskubaloia, saskibaloia eta neurri txikiago batean errugbia. Aldian behin beste modalitate batzuetako jardunaldiak egiten dira, hala nola atletismoa, txirrindularitza, surfa, arrauna, orientazioa, pelota, herri kirolak, ... Kirol eskaintza honetan parte-hartze indizea oso ona da. Parte-hartzea % 89koa baita (337tik 301).



Parte-hartzea orekatua da bi sexuak alderatua eta ondoan, Lezorekin alderaketa:

ORIO			
	Bai	Ez	%
Neskak	139	23	85.80
Mutilak	162	13	92.57

LEZO			
	Bai	Ez	%
Neskak	52	47	52.53
Mutilak	73	30	70.87



Datu hauek guztiak ikus daitezke ondoko taula eta grafikoetan.

		MATRIKULAK			Partaidetaza %		MATRIKULAK			Partaidetaza %	
BENJAMINAK	3, MAILA	GUZTIRA	78	MK	76	97,44	GUZTIRA	136	MK	129	94,85
		NESKAK	36	MK	35	97,22					
		MUTILAK	42	MK	41	97,62					
	4, MAILA	GUZTIRA	58	MK	53	91,38	NESKAK	64	MK	58	90,63
		NESKAK	28	MK	23	82,14					
		MUTILAK	30	MK	30	100,00		72	MK	71	98,61
ALEBINAK	5, MAILA	GUZTIRA	103	MK	90	87,38	GUZTIRA	201	MK	172	85,57
		NESKAK	44	MK	37	84,09					
		MUTILAK	59	MK	53	89,83					
	6, MAILA	GUZTIRA	98	MK	82	83,67	NESKAK	98	MK	81	82,65
		NESKAK	54	MK	44	81,48					
		MUTILAK	44	MK	38	86,36		103	MK	91	88,35


Parte-hartze datuen taula

Parte hartzea ikastetxeka


Ikastetxeek eskola kirolean parte hartzen dutenen banaketa aurkezten dugu jarraian. Hau da, eskola kirolean izena emanda daudenen arabera, ikastetxeetan dagoen parte-hartzea.

Grafiko hauetan aurkezten da zehatz mehatz ikastetxeen parte-hartzea matrikulazioaren arabera.


Lehen hezkuntzako 3. mailako ikasleen parte-hartzea.




Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleen parte-hartzea.



Lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleen parte-hartzea.



Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleen parte-hartzea.



b. KIROL ELKARTEEK EGITEN DUTEN ESKAINTZAREN PARTE-HARTZE DATUAK.

Aurrez aipatu dugun bezala, atal honetan ez daukagu parte hartzearen datu nominalik. Beraz, datu orokorrak aurkeztuko ditugu, ideia bat egite aldera eskaintza hauetan parte-hartzea nolakoa den.


Alde batetik, kirol eskola deiturikoen eskaintza dago. Orioko udalerrian, ofizialki, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak baimenduta, soilik Orioko FTren futbol eskola eta Orio Eragin Eskubaloi Klubaren eskubaloi eskola dago 2022-2023 denboraldian. Eskola hauetan benjamin (3. eta 4. maila) eta alebin (5. eta 6. maila) kategorietako taldeak daude. Parte-hartze datu hauek eskuratu ditugu:


Orioko FT:

- Benjaminetan 66 kirolari dituzte (9 neska eta 57 mutil).
- Alebinetan 92 kirolari dituzte (19 neska eta 73 mutil).
- Errendimenduan x kirolari dituzte (xx mutil).

Orio Eragin Eskubaloia:

- Benjaminetan 8 kirolari dituzte (8 neska).
- Alebinetan 44 kirolari dituzte (44 neska).





*Bestalde, errendimendu ibilbideko eskaintza dago lehen hezkuntzako 6. mailako kirolarientzat. Kasu honetan, ofizialki futboleko eta hauek dira parte-hartze datuak:

- Futbola: gizonen talde bakar bat 16 mutilekin.

*Banakako modalitateetako parte-hartzeari dagokionez, 2022-23 ikasturtean, benjamin eta alebin kategorietan, parte-hartze hau izan zen:

- Atletismoko 3 talde, 37 lizentziarekin (28 mutil eta 9 neska)
- Eskuz Pilota 4 talde, 42 lizentziarekin (39 mutil eta 3 neska).

Kontuan izan behar da kirol indibidual hauetan parte hartzen duten gazteak, bai ikastetxeetako eskola kirolean edota klubetako kirol eskoletan parte hartzen duten kirolari berdinak izan daitezkeela, hau da, ume batek modalitate bat baino gehiago praktika dezakeela.

8. BESTE BATZUK/HAINBAT

a. PLANGINTZA

- Ez dago eskola kiroleko Udal planik. Egiten diren jarduerak ez daude atxikita helburu espezifikoak dituen metodologia egituratu edo zehatz bati. Ezin izan da identifikatu udal mailako (udala eta ikastetxeak) eskola kirolaren programaren misioa, ikuspegia eta balioak jasotzen dituen dokumenturik.
- Orioko Ikastolak eta Zaragueta Herri Eskolak ez dute ikastetxeko kirol proiekturik. Orioko Ikastolak gurasoei eta ikasleei zuzendutako bi dekalogo ditu, kirol jardueretan nola jokatu eta nola parte hartu azaltzeko.

KOMUNIKAZIOA

- Programaren komunikazio osoa koordinatzaileen eta ikastetxeetako webguneen bidez egiten da.
- Ez dago Orioko eskola kirolaren logotipo identifikatzailerik.

b. ZEHARKAKO PLANAK: EUSKARA PLANA, BERDINTASUN PLANA, MUGIKORTASUN PLANA...

- Ez dugu identifikatu berriazko planik eskola kirolerako. Plan orokorragoak daude, baina horietan ez zaio erreferentzia espliziturik egiten eskola kiroleko programari.
- Mugikortasunari dagokionez, ikastetxeek autobusak partekatu dituzte kirol jarduerak egiteko joan etorrietan.
- Euskararekiko harremanean, planak kirol arloko jarduerak jasotzen ditu, jarduerak euskara hutsean garatzeko.
- Eskola kiroleko programan erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara da, bai jardueretan bai komunikazioetan.

c. DATUEN BABESA

- Gaur egun, eskola kirolaren programarekin zerikusia duten ikastetxeek datuak babesteko indarrean dagoen araudia bete behar dute.

IV.- KIROL ERAGILEEN AZTERKETA

KIROL KLUBAK

Hamabi kirol klub aktibo identifikatu dira. Horiek guztiek Orion dute egoitza soziala, eta honako izen hauek dituzte erregistratuta:

- Badok Hamahiru Beteranoen Arraunketa Elkarte
- Club Deportivo Berdin-Berdinak
- Asociación "Muskuilu Harria" Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkarte
- Orio Arraunketa Elkarte
- Orio Eragin Eskubalo Kluba
- Orioko Futbol Taldea
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba
- Orioko Sofbol Bate Bizkorak Kirol Elkarte
- Ospele K.K.
- S. Cicloturista Aldapa
- Talai-Mendi Mendizaleak

Oharra: Azterketa honetan ez da Zarautz Kirol Elkarte Orioko Udalerriko klubetzat hartzen, baina saskibalo jarduerarako udalak egiten duen ekarpen ekonomikoa baloratuko da.

1. ERREGISTRO EGOERA

- Kluben % 100ek Euskal Autonomia Erkidegoko kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta daude.
- Kluben % 100ek ez dituzte estatutuak eguneratuak Kirol Klub eta Kirol Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2012 Dekretuaren arabera.
- Kluben % 16,66k ez du egungo zuzendaritza batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta.
- Kluben % 50k ez du Bazkideen Erregistro Liburu eguneraturik.
- Kluben % 50k, ez du kide anitzeko organoen akta libururik (Batzarra eta Zuzendaritza Batzordea).
- Kluben % 50k ez du kontabilitate libururik.

2. ZERGA EGOERA

- Kluben % 100a IFZ dute.
- Kluben % 100a sinadura elektronikoa dute.
- Kluben % 8,33k ez du edo ez daki 036 inprimakiaren kopia duen (jardueren hasiera, helbidea, IFZ, BEZa, beste aldaketa batzuk).
- Kluben % 41,66k ez daki 840 inprimakiaren (jarduera ekonomikoetan alta) kopia duen edo ez
- Kluben % 25ek PFEZ tramitatzen du kirol jardueragatik.
- Kluben % 66,66k Sozietateen gaineko Zerga tramitatzen du (indarrean dagoen araudiak nahitaezkoa du).
- Kluben % 50k ez du lehentasunezko jardueraren eskaera Gipuzkoako Foru Aldundian tramitatzen,

3. EGITURA EGOERA

a. KARGUAK

- Presidenteen % 25a emakumeak dira.
- Idazkaritzan daudenen % 41,66k emakumeak dira.

b. ZUZENDARITZA BATZORDEA

- Klubetako Zuzendaritza Batzordeak 52 pertsonak osatzen dituzte (32 gizon eta 20 emakume).
- Kluben % 83,33k Zuzendaritza Batzordea du.
- Zuzendaritza-batzordeen % 100a, urtean 5-12 aldiz biltzen dira.
- Zuzendaritza-batzordeetako kideen kopurua 2 eta 9 pertsona artekoa da.

c. BATZARRA

- Kluben % 66,66a Batzarrak egiten ditu.
- Batzarren % 100a urtean behin biltzen dira.
- Batzarretara 8 eta 70 pertsona artean joaten dira.

d. HAUTESKUNDE PROZESUAK

- Kluben % 100a hauteskundeak egin ditu sortu zenetik.
- Kluben % 33,33k hauteskundeak egin ditu azken lau urteetan.

e. BAZKIDEAK

- Klubek 2.731 bazkide dituzte guztira (2112 gizon eta 619 emakume).
- Kluben % 58,33a bazkideak ditu.
- Orioko bazkide guztien % 54,92a kirol klub bakar batean biltzen dira.
- Orioko bazkide guztien % 87,92a lau kirol klubetan biltzen dira.

f. GIZA BALIABIDEAK

- 61 pertsonak osatzen dituzte klubetako kidego teknikoak (46 gizonen eta 15 emakumeek).
- Kluben % 41,66k emakumeak dituzte beren kidego teknikoetan.
- Kluben % 91,66k ez du kirol teknikarien lan kontrataziorik egiten kirol jarduera garatzeko.
- Kluben % 83,33k ez du langileen lan kontrataziorik egiten kluba kudeatu eta administratzeko.
- Kluben % 91,66k boluntarioak ditu.
- Kluben % 100ek ez du kirol zerbitzuetako enpresarik kontratatuta.
- Kluben % 50k kirolekoak ez diren zerbitzuetako enpresak ditu kontratatuta (aholkularitza fiskala eta juridikoa, webguneak, etab.).

g. BALIABIDE MATERIALAK

- Kluben % 100ek etxebizitza partikular batean edo udalak lagatako espazio batean dute egoitza soziala, eta ez dute ondare higigarri propiorik.
- Kluben % 100ek ez dituzte beren egoitza sozialeko hornidurak ordaintzen (argia, etab.).
- Kluben % 100ek hornidura eta kirol material hornitzaile ezberdinak dituzte.
- Kluben % 41,66k ez du kirol baliabide materialen inbentariarik.

4. EGOERA EKONOMIKOA

- Kluben % 50k ez du kontabilitateko programa informatikorik, eta ez dator bat irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitutako Kontabilitate Plan Orokorrearekin.
- Kluben % 100ek aurrekontu orekatu samarrak dituzte.
- Orio Arraun Elkarteak 82.830 euroko hitzarmena du Udalarekin.

- Club Deportivo Berdin-Berdinak 13.946 euroko hitzarmena du Udalarekin
- Zarautz Kirol Elkartek 3.756,50 euroko dirulaguntza jaso du.
- Identifikatutako eta azterketa honen xede diren klubetako aurrekontuetan urtean 1.109.953,53 €-ko bolumena ematen dute guztira tokiko kirol jarduerak garatzeko.

a. DIRU BALIABIDE PUBLIKOAK

- Tokiko kirol jarduerak garatzeko klubetako urteko aurrekontuetan guztizko bolumenaren % 27,05a (300.247,00 €) diru laguntza publikoetatik dator.
 - % 66,29a (199.026,00 €) udalaren diru laguntzetatik dator.
 - % 33,71a (101.221,00 €) udalaz gaindiko diru laguntzetatik dator.

b. BAKOITZAREN DIRU BALIABIDEAK

- Klubetako urteko aurrekontuetan guztizko bolumenaren % 72,95a (809.706,53 €), tokiko kirol jarduerak garatzeko, erakunde horiek sortutako baliabide propioak dira.
 - % 40,34a (326.635,61 €) publizitatetik, babesetatik eta erakunde pribatuekin egindako hitzarmenetatik dator.
 - % 59,66a (483.070,92 €) bazkideen kuotak, kirolariak, sarrerak, izen-emateak, loteria eta abarretatik dator

c. BALIABIDE PUBLIKOAK EKIPAMENDUETAN

- Orioko Udalak udalaren kirol instalazioak kudeatzen dituen enpresari ordaintzen dizkio kirol klubetako erabilera guztiak. Helburu horretarako 27.104 € erabili dira 2022an.

d. DIRU BALIABIDEEN BANAKETA KIROL ELKARTEKA

- Orio Arraunketa Elkartea: Baliabideen % 60,22a (668.468 €).
- Orioko Futbol Taldea: Baliabideen % 11,99a (133.117,44 €).
- Orio Eragin Eskubalo Kluba: Baliabideen % 8,51a (94.444,60 €).
- Orioko Sofbol Bate Bizkorak Kirol Elkartea: Baliabideen % 4,87a (54.051,40 €).
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Baliabideen % 3,37a (37.352,46 €).
- Talai-Mendi Mendizaleak: Baliabideen % 2,28a (25.278,52 €).
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba: Baliabideen % 1,81a (20.040,09 €).
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba: Baliabideen % 1,78a (19.809,02 €).
- Badok Hamahiru Beteranoen Arraunketa Elkartea: Baliabideen % 1,67a (18.540,18 €).
- Ospele K.K.: Baliabideen % 1,58a (17.560,12 €).
- S. Cicloturista Aldapa: Baliabideen % 1,58a (17.550 €).
- Asociación "Muskuilu Harria" Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkartea: Baliabideen % 0,34a (3.742 €).

e. UDALAREN DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA KIROL ELKARTEKA

- Orio Arraunketa Elkartea: Baliabideen % 63,30a (125.932 €).
- Orio Eragin Eskubalo Kluba: Baliabideen % 13,80a (27.456,68 €).
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Baliabideen % 8,80a (17.493,82 €).
- Orioko Futbol Taldea: Baliabideen % 3a (5.940 €).
- Orioko Sofbol Bate Bizkorak Kirol Elkartea: Baliabideen % 2,30a (4.613€).

- Talai-Mendi Mendizaleak: Baliabideen % 1,90a (3.792 €).
- Zarautz Kirol Elkartea: Baliabideen % 1,90a (3.756,50 €).
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba: Baliabideen % 1,80a (3.641 €).
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba: Baliabideen % 1,50a (3.070 €).
- Ospele K.K.: Baliabideen % 0,90a (1.771 €).
- Asociación "Muskuilu Harria" Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkartea: Baliabideen % 0,50a (901 €).
- S. Cicloturista Aldapa: Baliabideen % 0,30a (659 €).

f. UDALAZ GAINDIKO DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA KIROL ELKARTEKA

- Orio Arraunketa Elkartea: Baliabideen % 58,58a (59.296 €).
- Orioko Soffbol Bate Bizkorak Kirol Elkartea: Baliabideen % 34,58a (35.000 €).
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Baliabideen % 3,56a (3.604 €).
- Orio Eragin Eskubalo Kluba: Baliabideen % 3,28a (3.321 €).

g. DIRU BALIABIDEEN BANAKETA RATIOA KIROL ELKARTE BAKOITZAREN LIZENTZIA KOPURUAREKIKO

- Orio Arraunketa Elkartea: Diruzko baliabideen (668.468 €)/lizentzien (162) ratioa 4.126,35 €-koa da.
- Asociación "Muskuilu Harria" Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkartea: Diruzko baliabideen (3.742 €)/lizentzien (0) ratioa 0 €-koa da.
- Ospele K.K.: Diruzko baliabideen (17.560,12 €)/lizentzien (15) ratioa 1.170,68 €-koa da.
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Diruzko baliabideen (37.352,46 €)/lizentzien (34) ratioa 1.098,60 €-koa da.

- Orioko Futbol Taldea: Diruzko baliabideen (133.117,44 €)/lizentzien (143) ratioa 930,89 €-koa da.
- Orio Eragin Eskubaloi Kluba: Diruzko baliabideen (94.444,60 €)/lizentzien (102) ratioa 925,93 €-koa da.
- Orioko Sofbol Bate Bizkorrak Kirol Elkarte: Diruzko baliabideen (54.051,40 €)/lizentzien (60 €) ratioa 900,86 €-koa da.
- S. Cicloturista Aldapa.: Diruzko baliabideen (17.550 €)/lizentzien (30) ratioa 585 €-koa da.
- Badok Hamahiru Beteranoen Arraunketa Elkarte: Diruzko baliabideen (18.540,18 €)/lizentzien (37) ratioa 501,09 €-koa da.
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba: Diru-baliabideen (20.040,09 €)/lizentzien (98) ratioa 204,49 €-koa da.
- Talai-Mendi Mendizaleak: Diruzko baliabideen (25.278,52 €)/lizentzien (132) ratioa 191,50 €-koa da.
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba: Diruzko baliabideen (19.809,02 €)/lizentzien (136) ratioa 145,65 €-koa da.

**h. UDALAREN DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA RATIOA
KIROL ELKARTE BAKOITZAREN LIZENTZIA
KOPURUAREKIKO**

- Orio Arraunketa Elkarte: Diruzko baliabideen (125.932 €)/lizentzien (162) ratioa 777,36 €-koa da.
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Diruzko baliabideen (17.493,82 €)/lizentzien (34) ratioa 514,52 €-koa da.
- Orio Eragin Eskubaloi Kluba: Diruzko baliabideen (27.456,68 €)/lizentzien (102) ratioa 269,18 €-koa da.
- Ospele K.K.: Diruzko baliabideen (1.771 €)/lizentzien (15) ratioa 118,07 €-koa da.

- Orioko Sofbol Bate Bizkorak Kirol Elkartea: Diruzko baliabideen (4.613 €)/lizentzien (60 €) ratioa 76,88 €-koa da.
- Orioko Futbol Taldea: Diruzko baliabideen (5.940 €)/lizentzien (143) ratioa 41,54 €-koa da.
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba: Diru-baliabideen (3.070 €)/lizentzien (98) ratioa 31,33 €-koa da.
- Talai-Mendi Mendizaleak: Diruzko baliabideen (3.792 €)/lizentzien (132) ratioa 28,73 €-koa da.
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba: Diruzko baliabideen (3.641 €)/lizentzien (136) ratioa 26,77 €-koa da.
- S. Cicloturista Aldapa.: Diruzko baliabideen (659 €)/lizentzien (30) ratioa 21,97 €-koa da.
- Badok Hamahiru Beteranoen Arraunketa Elkartea: Diruzko baliabideen (0,00 €)/lizentzien (37) ratioa 0 €-koa da.
- Asociación "Muskuilu Harria" Aisialdiko Arrantzako Kirol Elkartea: Diruzko baliabideen (901 €)/lizentzien (0) ratioa 0 €-koa da.

**i. UDALAZ GAINDIKO DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA
RATIOA KIROL ELKARTE BAKOITZAREN LIZENTZIA
KOPURUAREKIKO**

- Orioko Sofbol Bate Bizkorak Kirol Elkartea: Diruzko baliabideen (35.000 €)/lizentzien (60) ratioa 583,33 €-koa da.
- Orio Arraunketa Elkartea: Diruzko baliabideen (59.296 €)/lizentzien (162) ratioa 366,03 €-koa da.
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: Diruzko baliabideen (3.604 €)/lizentzien (34) ratioa 106 €-koa da.
- Orio Eragin Eskubaloi Kluba: Diruzko baliabideen (3.321 €)/lizentzien (102) ratioa 32,56 €-koa da.

j. DIRU BALIABIDEEN BANAKETA KIROL MODALITATEKA

- Arraunketa: baliabideen % 61,90a (687.008,18 €).
- Futbola: baliabideen % 11,99a (133.117,44 €).
- Eskubaloia: baliabideen % 8,51a (94.444,60 €).
- Sofbola: baliabideen % 4,87a (54.051,40 €).
- Kirol Egokitua: baliabideen % 3,37a (37.352,46 €).
- Mendizaletasuna: baliabideen % 2,28a (25.278,52 €).
- Atletismoa: baliabideen % 1,81a (20.040,09 €).
- Surfa: baliabideen % 1,78a (19.809,02 €).
- Euskal Pilota: baliabideen % 1,58a (17.560,12 €).
- Txirrindularitza: baliabideen % 1,58a (17.550 €).
- Arrantza: baliabideen % 0,34a (3.742 €).

k. UDALAREN DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA KIROL MODALITATEKA

- Arraunketa: baliabideen % 63,30a (125.932 €).
- Eskubaloia: baliabideen % 13,80a (27.456,68 €).
- Kirol Egokitua: baliabideen % 8,80a (17.493,82 €).
- Futbola: baliabideen % 3a (5.940 €).
- Sofbola: baliabideen % 2,30a (4.613 €).
- Mendizaletasuna: baliabideen % 1,90a (3.792 €).
- Surfa: baliabideen % 1,80a (3.461 €).
- Atletismoa: baliabideen % 1,50a (3.070 €).

- Euskal Pilota: baliabideen % 0,90a (1.771 €).
- Txirrindularitza: baliabideen % 0,90a (659 €).
- Arrantza: baliabideen % 0,50a (901 €).

l. DIRU BALIABIDEEN BANAKETA PARTE HARTZE MOTAREN ARABERA

- Banakakoa: baliabideen % 74,63a (828.340,39 €) (8 kirol modalitate).
- Kolektiboa: baliabideen % 25,37a (281.613,14 €) (3 kirol modalitate).

m. UDALAREN DIRU BALIABIDE PUBLIKOEN BANAKETA PARTE-HARTZE MOTAREN ARABERA

- Banakakoa: baliabideen % 79a (157.259,82 €) (8 kirol modalitate).
- Kolektiboa: baliabideen % 21a (41.766,18 €) (3 kirol modalitate).

n. BAZKIDEEN KUOTAK

- Bazkideen kuotak urtean 6 € eta 240 € artekoak dira.
- Bazkideen % 100 Orion egiten diren 11 kirol-modalitateetako 7ri lotuta daude (arrauna, futbola, eskubaloia, txirrindularitza, surfa, arrantza eta mendizaletasuna).
- Bazkideen % 71,43ek banakako partaidetzako kirol modalitateei lotutako kuota ordaintzen dute.
- Bazkideen % 28,57ek partaidetza kolektiboko kirol modalitateei lotutako kuota ordaintzen dute.

o. KIROLARIEN KUOTAK

- Kluben % 100ek kuotak kobratzen dizkie kirolariei.
- Kirolarientzako kuotak 5 €-etik 300 €-ra bitartekoak dira urtean.

5. PLANGINTZA

a. KIROL ELKARTEAREN PROIEKTUA

- Kluben % 81,81ek ez du klub proiekturik.

b. URTEKO KUDEAKETA PLANA

- Kluben % 81,81ek ez du urteko kudeaketa planik.

c. URTEKO EKONOMI ETA FINANTZA PLANA

- Kluben % 18,18ek ez du urteko plan ekonomiko finantzariorik.

d. URTEKO KIROL PLANA

- Kluben % 81,81ek ez du urteko kirol planik.

e. KIROL ARLOKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA PLANA

- Kluben % 100ek ez du kirol langileen prestakuntza planik.

f. KOMUNIKAZIO PLANA

- Kluben % 100ek ez du komunikazio planik.
- Kluben % 54,56 ondo identifikatuta daude: logotipo edo marka bat dute, sare sozialetan daude edo webgunea dute.
- Kluben % 45,45ek berezko publizitatea esplotatzen du bere taldeen lehiaketan.
- Kluben % 45,45ek publizitate propioa esplotatzen dute antolatzen dituzten ekitaldietan.

g. BERDINTASUN PLANA

- Kluben % 100ek ez du berdintasun planik.

h. MUGIKORTASUN PLANA

- Kluben % 100ek ez du mugikortasun planik.

i. EUSKARA PLANA

- Kluben % 100ek ez du Euskara Planik.
- Kluben % 100ek euskara erabiltzen du bere jarduera eta komunikazioetan, barneko eta kanpoko hizkuntza nagusi gisa.

j. DATUEN BABESA

- Kluben % 100k ez dator bat indarrean dagoen araudiarekin.

k. ASEGURUAK

- Kluben % 63,63ek erantzukizun zibileko aseguru orokor bat du, kirol klubaren berezko jarduerak barne hartzen dituen.
- Ekitaldiak antolatzen dituzten klubak % 100ek erantzukizun zibileko aseguru espezifiko bat dute aparteko jarduera horretarako.
- Klubak % 100ek ez du zuzendarien erantzukizun zibileko asegururik.

l. ZIURTAGIRIAK

- Klubak % 100ek ez du ziurtagiririk berdintasunaren, kalitatearen, euskararen eta abarren arloan.

6. KIROL ARLOA

a. KIROL ESKAINTZA

- Orioko udalerriko klubak kirol eskaintzak 11 kirol modalitate biltzen ditu, horietako batzuk dagozkien diziplinekin: Atletismoa, Arraunketa, Eskubaloia, Txirrindularitza, Futbola, Sofbola, Surf, Kirol Egokitua, Mendizaletasuna, Euskal Pilota eta Arrantza.
- 8 modalitate banakako parte hartzeak dira, eta 3 modalitate parte hartze kolektibokoak.
- 3 modalitatek ez dute emakumeen parte hartzerik (arrantza, euskal pilota, eta txirrindularitza).
- Orioko udalerriko klubak egungo eskaintzak eskola kirolaren tokiko eskaintzan jasotako kirol modalitateetan praktikak egiten jarraitzea bermatzen du.
- Klubak % 81,82k banakako partaidetza modalitateak eskaintzen ditu.
- Klubak % 18,18k parte hartze kolektiboko modalitateak eskaintzen ditu.
- Klubak % 81,82k lehiaketa jarduerak eskaintzen ditu.
- Klubak % 36,36k jolas jarduerak eskaintzen ditu.
- Jolas jardueren % 100a banakako partaidetza modalitateei lotuta daude (kirol egokitua, txirrindularitza, mendizaletasuna eta arrantza).
- Klubak % 100ek ez du kirol zerbitzurik eskaintzen.
- Oro har, klubak % 100ek gaitasuna dute kolektibo espezifikotako kirolarien parte hartzeari buruzko eskaerei erantzutek.
- Klubak % 100ek kirol ekitaldiak antolatzen dituzte erregularoki urtean zehar.
- Klubak % 100ek ez du hitzarmenik eskola kirolarekin lotutako ikastetxeekin.
- Klubak % 100ek ez du hitzarmenik tokiko beste klub batzuekin.
- Klubak % 9,09k hitzarmenak ditu Gipuzkoako beste kirol erakunde batzuekin.
- Klubak % 45,45k hitzarmenak dituzte Orioko Udalarekin.

b. KIROL LIZENTZIAK

- Kirol lizentziak 949 dira (621 gizonezkoak (% 65,44) eta 328 emakumezkoak (% 34,56)).
- Lizentzien % 87,78a zazpi klubetan kontzentratzen dira.
- Gizonezkoen lizentzien % 79,54a bost klubetan kontzentratzen dira.
- Emakumeen lizentzien % 85,06a bost klubetan kontzentratzen dira.

c. KIROL LIZENTZIEN BANAKETA PARTE-HARTZE MOTAREN ARABERA

- Banakakoa: 644 lizentzia (481 gizonezkoak (% 74,69) eta 163 emakumezkoak (% 25,31)).
- Kolektiboa: 305 lizentzia (140 gizonezkoak (% 45,90) eta 165 emakumezkoak (% 54,10)).

d. KIROL LIZENTZIEN BANAKETA KIROL ELKARTEKA

- Orio Arraunketa Elkarteak: 162 lizentzia (98 gizonezkoak eta 64 emakumezkoak).
- Orioko Futbol Taldea: 143 lizentzia (117 gizonezkoak eta 26 emakumezkoak).
- Orioko Itxas-Tresna Surf Kluba: 136 lizentzia (117 gizonezkoak y 19 emakumezkoak).
- Talai-Mendi Mendizaleak: 132 lizentzia (82 gizonezkoak y 50 emakumezkoak).
- Orio Eragin Eskubaloia Kluba: emakumezkoen 102 lizentzia.
- Orioko Kamal Ziani Atletismo Kluba: 98 lizentzia (80 gizonezkoak y 18 emakumezkoak).
- Orioko Sofbol Bate Bizkorrak Kirol Elkarteak: 60 lizentzia (23 gizonezkoak y 37 emakumezkoak).

- Badok Hamahiru Beteranoen Arraunketa Elkarteak: gizonezkoen 37 lizentzia.
- Club Deportivo Berdin-Berdinak: 34 lizentzia (22 gizonezkoak eta 12 emakumezkoak).
- S. Cicloturista Aldapa: gizonezkoen 30 lizentzia.
- Ospele K.K.: gizonezkoen 15 lizentzia.

e. KIROL LIZENTZIEN BANAKETA KIROL MODALITATEAREN ARABERA

- Arraunketa: 199 lizentzia (135 gizonezkoak y 64 emakumezkoak).
- Futbola: 143 lizentzia (117 gizonezkoak eta 26 emakumezkoak).
- Surfa: 136 lizentzia (117 gizonezkoak y 19 emakumezkoak).
- Mendizaletasuna: 132 lizentzia (82 gizonezkoak y 50 emakumezkoak).
- Eskubaloia: emakumezkoen 102 lizentzia.
- Atletismoa: 98 lizentzia (80 gizonezkoak y 18 emakumezkoak).
- Sofbola: 60 lizentzia (23 gizonezkoak y 37 emakumezkoak).
- Kirol Egokitua: 34 lizentzia (22 gizonezkoak y 12 emakumezkoak).
- Txirrindularitza: gizonezkoen 30 lizentzia.
- Euskal Pilota: gizonezkoen 15 lizentzia.

f. TALDEAK

- Taldeen % 100 hiru klubetan biltzen dira.
- 18 talde daude (7 gizonezkoak eta 11 emakumezkoak).
- Taldeek parte hartzeko hiru modalitate dituzte: eskubaloia (7 emakumezkoak), sofbola (2 emakumezkoak) eta futbola (7 gizonezkoak eta 2 emakumezkoak).

- Eskubaloiak emakumezkoen oinarrizko ibilbidea du (infantilak, kadeteak eta jubenilak).
- Futbolak gizonetzkoen oinarrizko ibilbidea du (infantilak, kadeteak eta jubenilak).
- Futbolak senior mailako taldeak ditu, gizonetzkoenak zein emakumezkoenak.
- Eskubaloian eta Sofbolan senior mailako taldeak daude emakumezkoetan.
- Emakumezkoen sofboleko senior taldearen kirol maila errendimendu handikotzat jotzen da.

g. TEKNIKARIAK

- 61 pertsonak osatzen dituzte klubetako kidego teknikoak (46 gizonak eta 15 emakumeak).
- 9 klubek dituzte kidego teknikoak.
- Kluben % 45,45k emakumeak dituzte beren kidego teknikoetan.
- Orion egiten diren 11 kirol modalitateetatik, 5tan parte hartzen dute emakumeak (kirol egokitua, Eskubaloia, sofbola, arrauna eta futbola).

h. KIROL EKITALDIAK

- Kirol-kluben % 90,90ek ekitaldi bat antolatzen dute.
- Ez da identifikatu ekitaldiak antolatzen dituen kanpoko kirol eragilerik.
- Kasu jakin batzuetan, partaidetza eremuak Orioko udalerria gainditzen du, eta ekitaldi gehienak kirol federazioen egutegi ofizialetan sartuta daude.
- Orioko Udala antolatzaileekin elkarlanean aritzen da, baliabide material eta logistiko zein ekonomi arloan.

V.- AZTERKETA EKONOMIKOA

1. UDALAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Azterketa horretan, Orioko Udalak emandako 2022. urteko udal aurrekontuko datuak erabiliko dira, eta kirolera bideratutako baliabide ekonomikoen batura osoa hartuko da kontuan.

a. GASTUAK

- Orioko Udalaren gastuen aurrekontu propioa 8.452.749 eurokoa da 2022rako. Kirolera bideratutako baliabideek 625.937 €-ko gastua egiten dute, hau da, aurrekontu horren % 7,41.
- Orioko Udalaren I. kapitulua 3.514.640 eurokoa da. Kirolera bideratutako baliabideek 64.677 euroko gastua dute kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 1,84.
- Orioko Udalaren II. kapitulua 2.928.254 eurokoa da. Kirolera bideratutako baliabideek 123.837 euroko gastua egiten dute kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 4,22.
- Orioko Udalaren IV. kapitulua 1.381.908 eurokoa da. Kirolera bideratutako baliabideek 408.529 €-ko gastua dute kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 29,56.
- Orioko Udalaren VI. kapitulua 461.193 eurokoa da. Kirolera bideratutako baliabideek 12.024 euroko gastua egiten dute kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 2,61.
- Orioko Udalaren VII. kapitulua 16.870 eurokoa da. Kirolera bideratutako baliabideek 16.870 €-ko gastua egiten dute kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 100

b. SARRERAK

- Orioko Udalaren III. kapitulua 1.675.424 eurokoa da. Kirol-arloko baliabideek 14.320 €-ko diru-sarrerak dituzte kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 0,85.
- Orioko Udalaren IV. kapitulua 4.960.289 eurokoa da. Kirol-arloko baliabideek 6.000 euroko diru-sarrerak dituzte kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 0,12.

- Orioko Udalaren V. kapitulua 190.030 €-koa da. Kirol-arloko baliabideek 13.200 €-ko diru-sarrerak dituzte kapitulu honetan, hau da, aurrekontu horren % 6,95.

Azterlan hau egiteko orduan, ez dago udalaren 2022ko aurrekontuaren likidaziorik. Zentzu horretan, Karela Kiroldegiaren kudeaketa integralari udalak egin dion ekarpena aztertzean, 85.428,24 €-ko gehikuntza antzeman da, hau da, aurrekontua 711.365,24 €-koa da.

2. UDAL KIROL ZERBITZUAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kirol arloko baliabideak partida hauetan laburbildu eta banakatu daitezke:

- Giza baliabideak (langile propioak): 76.727 € (% 10,78).
- Baliabide materialak (instalazioak, gastuak eta inbertsioak): 435.612,24 € (61,24%)
- Diru laguntzak (diruzkoak): 199.026 € (27,98%)
- Diru sarrerak: 33.520 €
- Kirol-arloaren emaitza orokorrak, gastuei dagokienez, 677.845,24 euroko saldo negatiboa du.

3. KIROL ERAGILEAK ETA BESTE BATZUK

Tokiko kirol sistema osatzen duten elementu eta eragile guztiak aztertu diren ataletan, bakoitzaren egoera ekonomikoa aztertu da.

Azterketa hau, egungo egoera ekonomikoaren ikuspegi globala bi alderdietatik aurkezteko borondatearekin egiten da: lehenengoak kirol eragile mota bakoitzak bere jardueran erabiltzen dituen baliabide propioak aztertuko ditu, eta bigarrenak, berriz, baliabide horiek kirol helburuaren arabera esleitzen saiatuko da.

a. GIZA BALIABIDEEN BANAKETA

Tokiko kirol sistemaren urteko baliabide ekonomikoa 2.771.524,17 €-koa da, eta kirol eragileek honako ekarpen hauek egiten dizkiote:

- Kirol Arloa: 711.365,24 €
- Kirol klubak: 809.706,53 €
- Ikastetxeak: 30.328,72 €

- Udalaz gaindiko baliabide publikoak (GAF): 104.485 €
- Karela Kiroldegia (BPXport): 415.638,68 €
- Kastore Gest SL, Zuhegan: 700.000 €

Baliabide ekonomiko publikoak 815.850,24 €-koak dira, guztizkoaren % 29,44a.

Baliabide ekonomiko propioak edo pribatuak 1.955.673,93 €-koak dira, guztizkoaren % 70,56a.

b. BALIABIDE EKONOMIKOEN XEDEA

Urteko baliabide ekonomikoak 2.771.524,17 €-koak dira, honela banatuta jarduera motaren arabera:

- Eskola kirola: 33.592,72 €
 - Baliabide ekonomiko publikoak 3.264 €-koak dira, guztizkoaren % 9,72a.
 - Baliabide ekonomiko propioak edo pribatuak 30.328,72 €-koak dira, guztizkoaren % 90,28a.
- Errendimendu kirola eta ekitaldiak: 1.082.849,53 €
 - Baliabide ekonomiko publikoak 273.143 €-koak dira, guztizkoaren % 25,23a.
 - Baliabide ekonomiko propioak edo pribatuak 809.706,53€-koak dira, guztizkoaren % 74,77a.
- Jarduera fisikoa: 955.081,92 €
 - Baliabide ekonomiko publikoak 539.443,24 €-koak dira, guztizkoaren % 56,48a.
 - Baliabide ekonomiko propioak 415.638,68€-koak dira, guztizkoaren % 43,52a
- Enpresa Pribatuak: 700.000 €
 - Baliabide ekonomiko propioak edo pribatuak 700.000€-koak dira, guztizkoaren % 100a

2. ATALA: DIAGNOSTIKOA

LEKUKO KIROL SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

I.- DEMOGRAFIA DIAGNOSTIKOA

Oriok 6.062 biztanle ditu, eta udal kudeaketaren mailan, herriak kirol egitura egonkorra behar du tokiko kirol sistemari arreta emateko: Udal Kirol Zerbitzua.

Gaur egun, Udal Kirol Zerbitzuak kirol arloko oinarritzko eta antolakuntzako beharrak asetzen ditu.

9,81 Km²-ko azalera duen udalerriaren hedadurak Gipuzkoako batez bestekoa baino % 41,60 dentsitate handiagoa erakusten du. Datu horrek erakusten du udalerriak etorkizunean izan ditzakeen mugak, bai biztanleriari dagokionez, bai azpiegiturei dagokienez. Ildo horretan, proiektzio demografikoek aukera hori berresten dute apur bat positiboa izango den migrazio saldoarekin.

Bere banaketa geografikoak, kirol ekipamendu nagusiak bere herrigunean biltzen ditu (kiroldegia, futbol zelaia eta frontoia). Udal Kirol Zerbitzua arduratzen da mantenuaz eta erabileraz.

Udalaren kirol instalazio nagusiek osatzen duten eremuaren mugek herrigunea hartzen dute batez ere, eta, beraz, instalazio horietara sartzeko kurba isotenporalak ezarritako parametroen barruan daude: 1.000 m arteko zerbitzu erradioa edota 15 minutuko ibilbidea oinez.

Orioren kokapen geografikoa eta udalerri mugakideekiko distantziak direla eta, kontuan hartu behar da udalerri horietako biztanleak izan daitezkeela udalerritik eskaini daitezkeen kirol zerbitzuen hartzaille. Egiaztatu da abonatuak pertsonen % 13,13 ez dela Orion bizi.

Adinaren eta generoaren arabera banaketa demografikoari dagokionez, biztanleriaren piramidean dagoen desoreka nabarmendu behar da, zehazki 40 urtetik beherakoetan.

Adin taldeen osaera oinarritzko datua da, antolaketari dagokionez, gizartearen oinarri dira; oinarri horiek aldatzen badira, horien gainean eraikitakoak ere hala egingo du. Aldaketa horiek eragina izan dezakete jardura fisikoa eta kirola egin dezaketen pertsonen mailetan, bai eta kirol zerbitzuen tipologiaren eskarian ere. Adin taldeen egiturari buruzko datu horiek lagungarriak dira Udal Kirol Zerbitzuak etorkizunean eskainiko dituen kirol zerbitzuen eskariaren joera eta tipologia ezagutzeko. Udal Kirol Zerbitzuaren hartzailleak 40 eta 60 urte bitartekoak izango dira. Beraz, egungo kirol eskaintza egokitzen joan beharko da, adin talde horietara egokitzeko. Kalkuluen arabera, 10 urteren buruan, abonatuak % 40 edo % 45 baino gehiago 50 urtetik gorakoak izango dira.

Gaineratu behar da Gipuzkoako lurraldean biztanleriaren zahartzea izango dela bilakaera demografikoaren faktore garrantzitsua.

Etorkizuneko ondorioak laburbilduz, biztanleriaren zahartzeak adin egitura eraldatuko du, adin nagusiagoko taldeen tamaina erlatiboa areagotuz eta gainerakoena murriztuz.

Abonatuak buruzko datuei dagokienez, azpimarratu behar da Udal Kirol Zerbitzuak Orioko biztanleen %24,61 hartzen duela bere gain, eta Gipuzkoako udal kirol zerbitzuen batez bestekoa %25-30 ingurukoa dela. Beraz, adierazle hori baliozkoa da, eta udalerria lurraldearen mailan kokatzen du, biztanleei kirol zerbitzuak emateari dagokionez.

II.- KIROL INSTALAKUNTZEN DIAGNOSTIKOA

Oriok instalazio eta kirol espazio ugari ditu, 21 instalazioz eta 50 kirol gunez osatua. Ratioa 8,25 kirol espaziora da 1.000 biztanleko. Baina datu kuantitatibo horiek ez dira bereizita aztertu behar, analisi kualitatibo batekin konbinatuta baizik.

Eskualdeko udalerriei dagokienez, Orioren egoera, kirol instalazio eta espazioei dagokienez, ona dela esan daiteke. Gipuzkoako antzeko biztanleria duten udalerriekiko alderaketak emaitza bera izan du.

Hala ere, instalazio espezifiko bat dago, Arraunetxe, beste herri batzuekiko konparazioak aldatzen dituen kirol espazioen kuantifikatzerako garaian.

Kirol espazio gehien kokaleku nagusia herrigunea da, eta banaketa logikoa da erabiltzaile posibleen kontzentrazioaren eta kirol jarduerarako sarbidearen arabera. Ildo horretan, udalerriko herriguneko distantziek eta joan etorriek ez dute iradokitzen, eta ez dute eskatzen instalazioen egungo banaketan esku hartzea.

Oro har, gaur egun bidegorri sarea dagoenez, errazagoa da kirol instalazioetara sartzea.

Kirol instalazioen eta espazioen titulartasuna publikoa da. Zuhegan titulartasun pribatuko kirol instalazioak pisu espezifiko oso txikia du titulartasun publikokoekin alderatuta, eta ez dago instalazioak eraikitze proiektu pribatu berririk.

Zuhegan herrigune nagusitik gertu dago eta jarduera fisikoarekin eta osasunarekin lotutako zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditu. Tokiko kirol eskaintzaren kalitatea hobetzeko aliatu bat izan litekeela uste da, epe ertain edo luzerako lankidetzak publiko-pribatua ezarriko balitz.

Orioko udalerriko kirol instalazio publikoen tipologia arrazoizkoa da. Ez da desoreka nabarmenik ikusten horietan, baina abonatuak eta erabiltzaileak eskaintzen zaien jarduera libreterako eta zuzendutako jardueretarako bideratzen diren kirol espazio kopuruen eta kalitatearen igoera baloratu beharko lirateke. Karela Kiroldegia eskaintzen dituen kirol espazioek zerbitzua mugatzen dute. Ikuspegi demografikoa kontuan hartu beharreko elementua izango da.

Igerilekuen kasuan, ur laminaren dimentsioa biztanleen eta erabiltzaileen mailetara egokitzen da. Ez litzateke lehentasunezko hartuko ur lamina handitzeko ekintza bat, aurretik udal instalazio guztiei ematen zaien erabilera berrantolatu gabe.

Ikastetxeetako kirol instalazioak eskola kirolerako partzialki erabiltzeak mesede egiten dio kirol instalazioak ordutegi jakin batzuetan jendez gainezka ez egoteari.

Udal kirol instalazioen egungo parkea nahiko zaharra bada ere, behar bezala mantendu da eta hobekuntzak egitea aurreikusten da, baita eraikuntza berriei ekitea ere, frontoiaren kasuan bezala. Eraikuntza berrian atletismoa praktikatzeko edo entrenatzeko gunek bat baloratu beharko litzateke.

Ekipamendu berrien plangintzari eta hornidurari dagokionez, hala badagokio, funtsezko lau alderdi jaso beharko lirateke: segurtasuna, mantentze-lanak, irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna.

Udalerria natur gunek aberats batean dago eta COVIDaren pandemiaren ondoren, kirol jarduerak gora egin du espazio horietan. Ekipamendu horiek udalerriko hirigunetik gertu edo inguruko eremuetan (ibilbideak, bidezidorrak, hondartza, etab.) daude, eta kontuan hartu beharreko alderdia izango da horiek hobetzea edo hornitzea kirola egiteko. Txirrindularitzako, mendiko edo surfeko klubak lankidetzak garrantzitsuak dira kasu honetan.

Hiri eta natura espazioak kirol espazio ez konbentzional gisa erabiltzea herritarren artean jardura fisikoa sustatzeko aukera gisa aurkezten da.

Kirol Zerbitzuak erabiltzen duen kudeaketa ereduak egituraz egokitu beharko litzateke etorkizuneko jarduketetara, udalerriko kirol instalazio guztiak kontrolatzeko beste kudeaketa eredu batzuk baloratuz, herritar guztiei irekiz eta, horrela, balizko eskusibotasunak saihestuz.

Orioko kirol instalazioen irisgarritasuna egokia da, hau da, sarbide egokitua dutela ulertuta, bai ikusleentzat, bai kirolarientzat, eraikinetatik gertu dauden aparkaleku tokiak desgaitasuna duten pertsonentzako ibilgailuentzat, espazio osagarrientzat, aldagelentzat, komuentzat eta abarrentzat. Instalazioen mantentze planak eta atxikitako langileak dira detekta daitezkeen akatsak zuzentzeko modurik onena. Arraunetxea herritarrei irekitzeko erabakia hartzen bada, beharrezkoa izango da baloratzea aparkaleku bat sortzea dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta hauen laguntzaileentzat instalazioan.

Udal Kirol Zerbitzuak inbertsio partida bat du urtero, eta dagozkion mantentze lanak egiten ditu instalazio bakoitzean. Hala ere, komenigarria litzateke epe ertain/luzerako inbertsio plan bat ematea, etorkizuneko kudeaketan identifikatzen diren beharrei erantzuteko. Udalaren bulego teknikoaren parte hartzea eta kirol arloarekin koordinatzea funtsezkotzat jotzen da.

Azkenik, adierazi behar da instalazioek dagozkien erabilera araudiak eta autobabes planak dituztela. Ildo horretan, indarrean dagoen araudiaren eta kirol instalazioen erabileraren arabera eguneratzen joatea gomendatzen da, instalazioen segurtasuna bermatzeko. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da kirol instalazioen zerbitzuko Udal erregelamenduak egitea, zehapen araubidea barne.

III.- UDAL KIROL ZERBITZUAREN DIAGNOSTIKOA

Orioko Udalak Udal Kirol Zerbitzutik kudeatzen ditu jarduera fisikora eta kirolera bideratutako baliabide ekonomikoak, materialak eta ekipamenduak.

Ezartzen den antolaketa funtzionala kirol teknikari batek osatzen du. Teknikari horrek Herritarrentzako Zerbitzuen Udal Batzorde batean eta beste koordinazio organo batzuetan parte hartzen du, eta horrek aukera ematen dio gainerako uda arloekin elkarreraginean aritzeko.

Gaur egun, beharrezkotzat jotzen da Udal Kirol Zerbitzuko arlo teknikoko langile-hornidura egonkortzea. Orioko Udalak ekimena hartu nahi badu tokiko kirol sisteman, eta Kirol Plan honetatik eratortzen diren eta onartzen diren ekintzak behar bezala burutu nahi baditu, arlo tekniko sendoa eduki beharko du.

Horretarako, komenigarria litzateke Kiroletako Udal Zerbitzuaren funtzionamendua eta egitura ondo identifikatuta eta jakitera emanda edukitzea, herritarrek eta kirol eragileek udalaren kirol egitura uler dezaten eta erreferentzia bat izan dezaten.

Ikuspegi horretatik, Udal Kirol Zerbitzuak kudeaketa eraginkorra egin beharko luke, tokiko jardueraren kirol eta ekonomia kontrola ezarri ahal izateko.

Ildo horretan, beharrezkoa izango litzateke foro egonkorak sortzea kirol klubekin eta ikastetxeekin, non, denboraldiko edo ikasturteko beharrez gain, etorkizuneko tokiko kirol agertokia ere landuko den.

Era berean, kirol klubei eta eskola kirolari dirulaguntzak emateko formula azter liteke, eta dirulaguntza izendunak ezarri, urtero berrikusteko modukoak, klubak eta ikastetxeen ohiko jarduerarako. Sistematika horrek urtero egiten diren eta denboran egonkorak diren kirol ekitaldiak barne har ditzake. Lehia-konkurrentziako dirulaguntzen aukera denboraldian lortutako kirol emaitzen ondoriozko ekitaldietan zentratu daiteke.

Bestalde, hitzarmenen bidez erregularizatu beharko litzateke kirol klubei egoitzak eta baliabide materialak ematea. Kirol klub bakoitzarekin banakako bilerak eginez eta egoitzak bisitatuz gero, erakunde bakoitzaren benetako beharrak eta horien kontserbazio egoera argitu daitezke.

Abonatuei eta erabiltzaileei buruzko datuak Gipuzkoako batez bestekoaren behealdean daude (% 25-30). Lortutako sartze tasa % 24,61ekoa da, eta horrek esan nahi du, agian, udalaren kirol eskaintza ebaluatu behar dela.

Eskaintza arrazoizkoa da orduerik dagokienez, era askotakoa jardueretan, eta Karella Kiroldegian dauden guneetara egokitzen da. Hala ere, udal eskaintzan kalitatea hobetu nahi bada eta herritarrei zerbitzuak zabaltzen saiatu nahi bada, beste instalazio batzuk erabiltzea planteatu beharko litzateke, hala nola Arraunetxe.

Hobekuntza hori bilatzeak demografiaren bilakaera aurreikusi beharko luke, eta eskaintza adin talde nagusien eskarira egokitu.

Harpidedunentzako eta, oro har, herritarrentzako zerbitzuen gakoetako bat zerbitzu horiek gauzatuko dituzten enpresen kontratazioa da. Alde horretatik, kontratazio aukerak askotarikoak dira, bai denboran, bai edukian. Gaur egun, bi joera daude Gipuzkoan: lehena kudeaketa zuzena da, udal arduradun tekniko bat du kudeatzaile, eta enpresak azpikontratatzan ditu kirol jardueretarako, garbiketarako, mantentze lanetarako, harrerarako eta abarretarako; bigarrena, berriz, enpresa baten bidezko kudeaketa integralaren bidezko zerbitzuak ematea da. Zaila da jakitea eta zehaztea zer den hobea. Bi egoera horiek batera gertatzen dira Gipuzkoan, eta, oro har, antzeko emaitzak izaten dituzte. Zuzeneko kudeaketaren kasuan, kontrol ekonomikoa udalarena da, eta, beharbada, beharrezkoa litzateke udaleko kirol arloko langile kopurua handitzea. Kudeaketa integralaren kasuan, kontrol ekonomikoa enpresarena da, eta gakoa da dagokion lehiaketaren plegu administratiboak eta teknikoak egitea, bai eta zerbitzua emateko ezarriko diren baldintzak ere.

2022ko tasak eta prezioak Gipuzkoako batez bestekora egokitzen dira, 56,34€-ko autofinantzaketarekin.

Arraunetxeko instalazioek Karela Kiroldegiarekin bat egingo balute udalaren kirol eskaintzan, doikuntza eta hazkunde ekonomikoa ekarriko luke, bai gastuan, bai inbertsioan.

Hala badagokio, egokitze jotzen bada, zerbitzuen kostuen aldez aurreko azterketa egin liteke, eta prezio eta tasa publikoak egokitu eta eguneratu. Jarduketa horri esker, hala badagokio, autofinantzaketa maila zerbitzu publikoaren ikuspegitik baloratu ahal izango litzateke.

Era berean, inbertsio plan bat aurreikusi beharko litzateke, kirol instalazioak eta ekipamenduak epe ertain eta luzera mantentzeko, berritzeko, birmoldatzeko eta eguneratzeko egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko.

Horretarako, eta gai jakin batzuetan, enpresa espezializatuen laguntza izan beharko litzateke, baina betiere Udal Kirol Zerbitzuak gainbegiratuta. Horretarako, kontratazio zehatzak egin beharko dira, eta, hala badagokio, dagozkien pleguak.

Arraunetxeren udalaren kirol eskaintzan sartzeak, jarduerak Karela Kiroldegia eta honen artean banatzea erraztuko luke, aretoko jarduerak Arraunetxera eramatea eta Karela Kiroldegian ikastetxeetako, federatutako eta adinekoentzako jarduerak mantentzea ahalbidetuz. Arraunetxeren beharrezkoa litzateke arraun klubaren eta beste erakunde erabiltzaile batzuen erabilera ordutegiak berrantolatzea.

Kirol Zerbitzuak bere zerbitzuen informazioa zabaltzeko erabiltzen dituen komunikazio kanalak indartu egin beharko lirateke, bai kirol eragileekin, bai herritarrekin. Orioko Udalak har ditzakeen erabakiak tokiko kirol sisteman eragin ditzaketen onuren ikuspegitik azaldu beharko dira.

Kirol sistemari lotutako beste eragile batzuekin egindako akordioei esker, hainbat zerbitzu, kanpaina eta programa gara daitezke. Esparru horretan, interesgarria da Mugiment/Kirol Txartela kanpainari eustea Eusko Jaurlaritzarekin. Halaber, KOZ (Kirol Orientazio Zerbitzua) ezartzea gomendatuko litzateke, Osakidetzarekin eta Zaharren Babeslekuarekin lankidetzan. Alde batetik, zerbitzu horrek patologia kronikoak dituzten pertsonak jarduera fisikoan sartzea erraztuko luke, eta, bestetik, adinekoei zerbitzuak ematea.

IV.- KIROL ERAGILEEN DIAGNOSTIKOA

ESKOLA KIROLA

1. SARRERA

Orioko udalerriko eskola kirolaren egoeraren diagnostikoa egiteko, hasierako azterketa dokumentuan jasotako datuetan oinarrituko gara. Udalerrian indarrean dagoen kirol hastapeneko edo eskola kiroleko eredua baliagarria izan da sortu zen unean, baina ez da eboluzionatzen joan argitaratutako araudiarekin batera. Beraz, gaur egun, litekeena da zenbait doiketa behar izatea, eskola kirolaren egungo eta etorkizuneko errealitateari erantzun ahal izateko.

Oro har, jarraian puntuz puntu baloratuko direnez alderdi guztiak, gabezia esanguratsu bat aipatu behar da, diagnostiko osoa baldintzatzen duena: eskola kirolaren planifikaziorik eza. Honela:

2. JARDUERA ESPARRUA

Hasiera batean, esan daiteke Orioko udalerrian dagoen kirol-hastapeneko ereduak eskola-kirolaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen duela. Baina ez, ordea, etorkizun hurbilean eskola adineko kirol jardueraren titulazioen arloko baldintzei eragingo liekeen araudia, ezta baliabide publikoak lortzeko aurreikusten diren baldintzak ere.

3. KIROL ESKAINTZA

Eskola kirolaren egungo kirol eskaintzak ez du alde nabarmenik erakusten Gipuzkoako gainerako udalerriekin alderatuta. Horrela, egungo eskaintzak adin horietarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen ditu:

- Kirol anitzeko izaera du. Modalitate kolektiboen egutegia eta unean uneko jarduera osagarriak (surfa, atletismoa, pilota, etab.) eskaintzen dira.
- Benjamin eta alebin kategorietarako eskainitako jarduerak jarraipena dute udalerriko kirol egituretan. Horrela, gehienbat bermatzen da kirol ibilbidearekin jarraitzeko aukera, joan etorriak egin behar izan gabe.
- Ikastetxeak dira adin horietan kirol nagusiak egiteko ardatza.
- Koordinazio mailan behar bezala prestatutako giza baliabideak daude, baina begiraleen mailan gabeziak dituzte. Halaber, ez da egiaztatu ikasturtean zehar koordinazio pedagogiko egonkorrik izan denik.

- Udalerriko klubek eskaintza osagarri bat dute: atletismoa, pilota, eskubaloia, futbola, arrauna, etab.

Azkenik, sarreran aipatzen zen bezala, eskola kirolerako planifikatutako helbururik ez dagoenez, ez dugu horiek betetzen direla baieztatzeko irizpide edo adierazlerik. Orioko Ikastolak gurasoei eta ikasleei zuzendutako bi dekalogo ditu, jardueran izan behar den portaerarekin lotuta

4. ANTOLAKUNTZA EGITURA

- Antolamendu egiturari dagokionez, nabarmendu nahi dugun lehenengo gauza egitura horren funtzionamendu egokia da.
- Gure ustez, egitura horren funtzionamendua egungo harreman pertsonaletan eta taldea osatzen duten pertsonen inplikazioan oinarritzen da. Egoera hori ahulgunea izan daiteke etorkizunean.
- Egungo bi koordinatzaileetatik bat irakaslea da, eta bigarrena, berriz, eskolatik kanpoko koordinatzailea, biak kontratatatuak.
- Baina begiraleak ez dute orokorrean bere eginkizunak betetzeko behar duen prestakuntzarik eta titulaziorik. 2026ko urtarrilean sartuko da indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta aritzeari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea. Lege horrek kirol titulazio bat izatea eskatuko du eskola kiroleko begirale gisa jarduteko. Epe labur eta ertainean, jarduerari eragin dakioke, administrazioek hori betetzea eskatuko baitute baliabide ekonomiko publikoak jasotzeko.
- Bestalde, lehen azaldutakoarekin batera, administrazioak begiraleen lan erregularizazioa lehenetsiko du (Gipuzkoako Foru Aldundiak bereizten du gaur egun dirulaguntzen zenbatekoaren balorazioan).
- Ez dago ikastetxeek eta udalak osatutako eskola kirolaren tokiko fororik. Ikastetxe bakoitzak bere aldetik lan egiten du noizbehinkako lankidetzekin, adibidez, mugikortasunaren arloan.
- Orioko Udalak lankidetzak hitzarmen bat du ikastetxe bakoitzarekin, eskola kirolari egiten dioten ekarpen ekonomikoa barne, zenbatekoa zehaztu gabe.
- Orion ez dago kirol hastapenerako eskaintza edo kuota bateraturik.
- Ez dago "Eskola Kirolaren Tokiko Egitura" deiturikoa.

5. LOTURA DUTEN ERAGILEAK

Analisiaren atalean zehaztutako eskola kirolarekin lotutako eragileei dagokienez, honako gogoeta hauek nabarmendu behar dira:

- Programa kudeatzearen eta abian jartzearen garrantzia ikastetxeetako kirol koordinatzaileei dagokie ia erabat. Benetan pertsonak izanik, eta ez erakundeak, programa garatzeko aukera ematen dutenak.
- Gurasoen elkarteek programaren kudeaketa arruntan duten eginkizunak zalantzak sortzen ditu. Ez dakigu nola baloratu beren parte hartzea.
- Pandemia baino lehen, udalerriko klubek eskola kirolaren programan parte hartzea ohikoa izan da, eta, kasu batzuetan, laguntza teknikoa eman dute lehiaketan edo jarduera batzuetan lagundu dute. Jarduera osagarriak ere eskaintzen dituzte kirol eskolen bitartez.
- Ez dago klubaren eta ikastetxeen arteko hitzarmenik klubek ikastetxeetako eskola kiroleko programan aktiboki parte har dezaten.
- Ez dago kirol zerbitzuak etengabe ematen dituen kanpoko enpresarik, kasu jakin batzuetan izan ezik, hala nola Kastore Gest SLrekin (Begi Bistan) egiten den arraun jardueran.

6. BALIABIDE EKONOMIKOAK

- Oro har, esan daiteke Kirol Zerbitzuak ez duela jardueraren kontrol ekonomikorik. Zaila da gastuen eta sarreraren balantze bat egitea datu nahikorik ez dagoenean. Zaila da zenbatzea udalaren baliabide ekonomikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza barne, eta ikastetxe bakoitzaren baliabide propioak (kuotak). Udal laguntza ikastetxe bakoitzarekin egindako hitzarmen orokor baten barruan sartzen da, eta horrek diru sarreraren kapitulua indargabetzen du.
- Egoera horrek Kirol Zerbitzua behartu lezake aurrekontuetan etorkizunean egon daitezkeen desbideratze edo aldaketek arduratzera. Egungo egoerak Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen baliabideak gutxitzea ekarriko du.
- Gaur egun, Udalak pisu handiegia du programaren finantzaketan. Aurrekontuko datu ekonomikoetan administrazio publikoen ekarpen ekonomikoa % 10ekoa bada ere, diru sarreraren jatorria kontuan hartuz gero, ekarpen hori % 70ekoa izan daiteke. Orioko Ikastolako kuoten ohiko ordainketa hilean 11 eurokoa da, eta Zaragueta Herri Eskolakoa, berriz, ikasturtean 35 eurokoa.
- Izena emandako ikasle bakoitzeko eskola kiroleko programaren batez besteko kostua 111,60 €-koa da urtean.

7. ZUZENDUTAKO BALIABIDE TEKNIKOAK

- Instalazioak:

Ikastetxeetako instalazioetan eta udaleko kirol instalazioetan dauden baliabideak erabiltzen dira.

- Giza baliabideak:

Eskola kirolera bideratutako giza baliabideei dagokienez, honako hauek aipatu behar dira:

- Eskainitako jarduerak koordinatzeko ardura duten teknikarien trebakuntza egokia da.
- Lehen aipatu den bezala, aste barruan zerbitzua ematen duten begiraleak bolondresak dira eta orokorrean ez dute horretarako prestakuntza handirik eta, oro har, ez dute titulaziori.
- Klubetako teknikariek, oro har, federazioen esparruko kirol titulazioak dituzte.

8. PARTE HARTZEA

- Zarautzen egiten diren bileretan lehiaketa puntuaren jardueren egutegiak egiten dira.
- Bi ikastetxetan astero entrenamendu saio bat eta lehiaketa saio bat egiten dira.
- Analisiaren atal berean ikus daitekeenez, ikastetxeetako kirol programan %89k parte hartzen du (Gipuzkoak %50eko batez bestekoa du). Partaidetza oso handia da, eta orekatutzat jo daiteke generoari dagokionez (matrikulatutako nesken % 85,50 eta matrikulatutako mutilen %92,57).
- Klubetan jarduerari buruz bildutako datuei dagokienez, eta datu nominalak ez direla kontuan hartuta, parte hartzea lurraldeko gainerako lurraldeen antzekoa da. Futboleko, atletismoko eta pilotako jardueretan emakumeen parte hartze eskasa egiaztatzen da. Hala ere, eskubaloiko modalitatean emakumeen parte hartzearen bolumen esanguratsua azpimarratu behar da.

IV.- KIROL ERAGILEEN DIAGNOSTIKOA

KIROL ELKARTEAK

Orioko kirol asoziazionismoaren sorrera arraunaren inguruan antolatu zen. Eratzen eta sartzen joan diren kirol klubek banakako eta taldeko kirol modalitateen eta kirol ekitaldien ingurunea sortu dute.

a).- Erregistro eta zerga egoera

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroari eta Gipuzkoako Foru Ogasunari dagokienez, klubaren funtzionamendu ekonomiko eta administratibo arruntaren esparruan zenbait gabezia daude. Azterketa hau entregatu ondoren, enpresak orientazio zerbitzu baten bidez aztertuko du erregistro hori. Orientazio zerbitzu hori eskatzen duten klubari eskainiko zaie.
- Etorkizunean, ildo horretan aholkularitza eta orientazioa behar direla ikusten da, laguntza tekniko bat edo egungo egoera erregularizatzea ahalbidetuko duen irtenbide bat bilatzea baztertu gabe.

b).- Egitura egoera

b.1).- Estamentuak

- Kirol klubak ondo egituratuta daude beren estamentu guztietan, batez besteko adin nahiko gaztearekin eta indarrean dagoen araudiaren arabeko txandakatzearekin, kasuren batean izan ezik.
- Zuzendaritza karguetan emakumeen presentzia nahiko orekatua da (emakumeen % 38,45 eta gizonen % 61,50).
- Bazkide kopurua handia da, eta, termino absolutuetan, baieztatu daiteke Orioko biztanleen % 35 eta % 40 bitartean tokiko kirol klub bateko bazkidea dela, erakunde horien jardueraren sozializazioaren seinale garbia.
- Kirol klubetako estamentuetan emakumearen presentzia mantentzea eta indartzeko ahalbidetuko duten neurriak baloratu eta adostu beharko dira.

b.2).- Giza baliabideak

- Kirol teknikarien lanpostu nagusiak partzialki erregularizatuta daude eta titulazio bat dute. Baina kirol jarduerak garatzeko gainerako langileak erregularizatzeko geratuko lirateke, lan kontratuen edo boluntariora kontratuen bidez
- Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legeak klubei ere eragingo die. 2026ko urtarrilean sartuko da indarrean eta dagozkion titulazioak beharko dituzte entrenatzaileek.
- Harrigarria da kirol boluntarioen poltsarik ez egotea Orion sortzen den kirol jardueraren bolumenaren aurrean.
- Zerbitzu jakin batzuk (aholkularitza fiskala eta juridikoa, webguneak, etab.) kanpora ateratzeak ez ditu kirol klubek kirol, ekonomia eta administrazio jarduerak berez dakartzan zenbait gabezia ordezkatzen kudeaketan eta antolaketan

b.3).- Baliabide materialak

- Kirol klub jakin batzuk Udal Kirol Zerbitzuaren ardurapean daude, oinarrizko baliabide materialen hornidurari dagokionez (egoitzak eta biltegiak). Egoitzak lagatzeko eta erabiltzeko irizpideak beharrezkoak dira.
- Kirol materialaren hornitzaile ugari daude, horietako batzuk oso espezifikoak, eta horrek baliabide ekonomikoak kenduko lizkieke kirol klub guztiei, erosketak batera eginez gero.
- Lizentzia federatua duten kirolariengan ez dago eraginik udalaren kirol instalazioen erabileraren ordainketan. Egoera hori beste udalerri batzuetan aztertzen da, eta instalazioetara abonatu behar diren klubeko kirolarien gutxieneko kopuru bat ezartzen da. Gure ustez, formula hori berrikusi eta irtenbide bat aztertu beharko litzateke. Ildo horretan, abonatu mota berri bat iradokitzen da, federatutako kirolari guztientzat derrigorrezkoa izango dena, prezio "sinbolikoan", klubaren jardueratik kanpo instalazioak erabili ahal izateko.

b.4).- Baliabide ekonomikoak

- Kirol klubek kontuek duten oreka sintoma positiboa da egungo esparru ekonomikoan.
- Oro har, kirol klubek beren jardueraren garapenean duten autofinantzaketa maila, kasu espezifikoetan izan ezik, oso onargarritzat jo daiteke, eta haien behar ekonomikoen % 73 inguru da. Finantzaketa publikoak, diru laguntzen bidez, behar horiek osatzen ditu.
- Gutxi gorabehera, kirol klubek kudeatzen dituzten baliabide ekonomikoen % 90, publikoak eta propioak batuta, lehiaketa jarduerak garatzera eta kirol ekitaldiak antolatzen bideratzen dira, aisialdiko eta jolas jardueretarako arreta hirugarren maila batean utzita. Diru baliabideen banaketaren berezitasun horrek berekin dakar lehiarik gabeko kirol modalitate berriak sustatzea zailtzea, eta klubak baztertu egiten ditu, besteak beste, osasun, aisialdi, jolas eta teknifikazio helburuak dituzten jarduera fisikoei lotutako kirol zerbitzuak emateari dagokionez, baliabide ekonomiko berriak sor baititzakete. Bestalde, eztaba daezina da lehiaketetara eta kirol ekitaldietara bideratutako inbertsio ekonomiko horrek kirol erreferente batzuen presentzia errazten duela, batzuetan oso beharrezkoak direnak, gazteen artean kirol ohitura sozializatzeko eta sustatzeko.
- Termino absolutuetan, klubek baliabide ekonomikoak, publikoak eta berezkoak, modu ez oso orekatuan banatzen dira kirolariaren parte hartze motaren arabera, banaka edo taldeka. Baliabideen % 74 partaidetza indibidualeko modalitateetara bideratzen da. Kopuru horiek ez dira aldatzen kirol modalitateen kopuruari dagokionez, eta alde hori areagotu egiten da lizentzia kopuruari dagokionez. Lizentzia kolektiboaren finantzaketaren batez bestekoa lizentzia indibidualena baino txikiagoa da. Baliabide publikoen kasuan, egoera berdina da. Arraun taldeak baliabide publiko eta pribatuak % 60 ditu.

b.5).- Bazkideen kuotak

- Kirol lehiaketaren esparruan erakunde (talde) bateko, proiektu bateko edo biztanleria bateko kide direla adierazi eta identifikatu nahi duten pertsonak bazkideak edo abonatuak dira, eta elkartuta sentitzen dira hainbat arrazoiengatik, hala nola tradizioagatik edo senide eta lagun presentziagatik. Kasu honetan, Orioko bazkide gehienak (%55) Oriko Arraunketa Elkarteko bazkideak dira, hau da, biztanleriaren %25. Herriko beste klub batzuetako kideek ere parte hartzen dute arraun klubeko bazkideak erakartzeko kanpainan. Datu horrek pisu espezifiko handia du tokiko kirol sisteman.

Hala ere, ez dira ahaztu behar gainerako kirol modalitateen sostengu ekonomikoa ahalbidetzen duten beste klub batzuetako gainerako bazkideak.

b.6).- Kirolarien kuotak

- Kirolarien kuotaren ordainketa zuzenean lotuta dago hiru elementuren konbinazioarekin: teknikarientzako ordainsaria, alokairuen edo instalazioen mantentze lanen ordainketa eta kirol materialaren erosketa.
- Kirolarien kuotak, bazkideenak bezala, beharrezkoak dira kirol klubek berezko baliabideak sortzeko. Ikus daitekeenez, bien batuketa oso garrantzitsua da aurrekontu mailan.
- Zenbateko ekonomiko handieneko kuotak lehiaketari lotutako banakako eta taldeko partaidetza modalitateekin lotzen dira. Zenbateko txikiaren kuotak aisialdiko kirol modalitateekin lotzen dira (mendia eta txirrindularitza).

c).- Planifikazioa

- Plangintza mailan gabezia bat dagoela egiaztatzen da. Kirol klubek ez dute tresna hori erabiltzen, eta kirol denboraldiak epe laburreko giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen beharren arabera lantzen dira. Ez da epe ertain eta luzerako proiekturik aurreikusten.
- Ez dago kudeaketa, kirol planak, baliabideak, prestakuntza, komunikazioa, genero berdintasuna, euskara, mugikortasuna, ziurtagiriak lortzea, datuen babesa eta abar biltzen dituen klub proiekturik.
- Kirol klub gehienek erantzukizun zibil orokorreko aseguruak dituzte, jarduera propioak eta apartekoak barne (%64). %100 izan beharko lukete, legez derrigorrezkoa baita. Bestalde, komenigarria litzateke zuzendarien erantzukizun zibileko aseguruaren harpidetza baloratzea; izan ere, ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, kirol klub eta kirol elkarteei buruzkoa, indarrean sartu zenetik, zuzendaritza batzordeetako kideek beren ondare pertsonalarekin erantzuten dute edozein gorabeheraren aurrean.
- Kirol klubek, ondo identifikatuta egon arren, teknologia berriak erabili eta jardueren garapenean publizitatea ustiatu arren, ez dute bazkideak erakartzeko kanpaina espezifikorik egiten. Egoera horrek bi irakurketa ditu: bata, bere jardueraren sozializazio onarekiko konfiantzatik dator, eta, bestea, helburu hori betetzeko teknologia berrietara egokitzea.

d.).- Kirol egoera

- Orioko Udalerriko klubuen kirol eskaintza, inongo kolektiborekiko diskriminaziorik gabe, aberatsa eta askotarikoa da, bai kirol modalitate eta diziplinetan, bai parte hartze motan, baina ez du proposatzen kirol zerbitzurik ematea.
- Orioko Udalerriko klubuen kirol eskaintza errendimenduari zuzenduta dago ia eskusiboki, bai sasoiko lehiaketa arautuen bidez, bai urtean zehar kirol ekitaldiak antolatuz.
- Emakumeen kategorian modalitate batzuk nahiko txikiak dira, eta ekintza positiboak bultzatu beharko lirateke genero berdintasunaren ikuspegitik, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan emakumearen presentzia sentsibilizatzeko, sustatzeko eta indartzeko.
- Eskola kirolean egiten den kirol jarduerak jarraipena du tokiko kirol ibilbideetan. Egoera horrek, hobetzeko edozein esku hartze erraztuko lukeela uste da.
- Kirol lizentzien kopurua handia da, eta, termino absolutuetan, esan daiteke Orioko biztanleen % 15 tokiko kirol klub bateko kirolaria dela, erakunde horien jardueraren ezarpen sendoaren seinale garbia.
- Kirolari guztien joera, praktika motari dagokionez, norbanakoen parte hartzea da. Ildo horretan, arraun, mendi eta surf klubak ditu kirol lizentzia gehien, guztizkoaren %45, gainerakoen aldean alde handiarekin. Generoaren ikuspegitik, emakumeen kategorian lehiaketarako lizentziak dira nagusi.
- Lehiaketa taldeei dagokienez, oreka dago emakumezkoen eta gizonezkoen kategorien artean (%50, hurrenez hurren).
- Lehiaketa taldeei dagokienez, oreka dago emakumezkoen eta gizonezkoen kategorien artean (%50, hurrenez hurren).
- Emakumezkoen softboleko senior taldeen eta emakumezkoen eta gizonezkoen traineruen kirol maila errendimendu handikotzat jotzen da.
- Adierazi behar da klubetako kidego teknikoak osatzen dituzten pertsonen kopurua handia dela eta gizonen eta emakumeen presentziari dagokionez desoreka dagoela, lehenengoen alde.
- Ez dago klubuen eta Orioko gainerako kirol agenteen arteko akordioen berririk.
- Ez dago udalak eta kirol klubek osatutako fororik.

V.- DIAGNOSTIKO EKONOMIKOA

Diagnostiko honetan Lezoko Udalarekin alderatzen da, 2022an bi toki erakundek kirolaren arloan egindako jarduketaren datu ekonomikoak alderatzeko.

€	ORIO (6.062 hab.)			LEZO (6.103 hab.)		
	Udal.	Kirolak	%	Udal.	Kirolak	%
Aurrekontua	8.452.749	625.937	7,41%	9.300.000	698.717	7,51%
Gastuak						
I. Kapitulua	3.514.640	64.677	1,84%	3.767.000	69.717	1,85%
II. Kapitulua	2.928.254	123.837	4,22%	3.326.350	122.400	3,68%
III. Kapitulua	0	0	0	2.000	0	0
IV. Kapitulua	1.381.908	408.529	29,56%	1.396.650	466.600	33,41%
V. Kapitulua	0	0	0	205.000	0	0
VI. Kapitulua	461.193	12.024	2,61%	588.000	40.000	6,80%
VII. Kapitulua	16.870	16.870	100%	0	0	0
IX. Kapitulua	0	0	0	15.000	0	0

Lehenik eta behin, datu horiei esker egiazta dezakegu bi udalerriek alde txikiak dituztela kapitulu guztietan.

Gastu arruntari dagokionez, aldea ez da nabarmena da. Baina gastu hori udalaren kirol politikaren ikuspegitik baloratu behar da, eta, batez ere, kirol instalazioetan abonatuak pertsona kopuruarekiko proportzionaltasunetik.

Oriok 1.492 abonatu ditu, eta Lezok berriz, 1.509. Biztanlerian sartzeko indizeak % 24,61 eta % 24,73 dira, hurrenez hurren. Orion urtean 62.212 erabilerara daude eta 53.519 Lezon.

Udalerriak biztanle kopuruarekiko egindako gastuaren ratioa 117,35€ da Orion, eta 114,49€ Lezon. Inbertsio ekonomiko hori % 2,44ekoa da. Ez da proportzionalki esanguratsua den aldea.

Udalaren gastuaren ratioa, abonatuak pertsona kopuruari dagokionez, 476,79 €-koa da Orion, eta 463,03€-koa Lezon. Ez du alde nabarmenik proportzioan.

Sarrerak sortzen dituzten abonatuak eta bestelako ordainketa erabiltzaileen erabilerari egotz dakiokeen zuzeneko gastua 403.277,24 €-koa da (Orioko Udal Kirol Zerbitzuaren aurrekontuaren % 64,43). Horrek esan nahi du, batzaz beste, 270,29 euroko gastua egin dela abonatuak pertsona bakoitzeko.

Lezoren kasuan, kalkulatu da 580.567€koa dela sarrerak sortzen dituzten abonatuak eta bestelako ordainketa erabiltzaileen erabilerari egotz dakiokeen zuzeneko gastua (Lezoko Udal Kirol Zerbitzuaren aurrekontuaren % 83,09). Horrek esan nahi du 384,74 euroko batez besteko gastua egin dela abonatuak pertsona bakoitzeko.

Orioko Udal Kirol Zerbitzuaren autofinantzaketa orokorra, udal kirol instalazioen eskaintzan egindako gastu osoarekiko, % 56,34koa da.

Lezoko Udal Kirol Zerbitzuaren autofinantzaketa orokorra, udal kirol instalazioen eskaintzari dagozkionez, % 46,94koa da.

Bi kasuen arteko alderaketak instalazio baten kudeaketa integralean dagoen aldea erakusten du, Oriok instalazio bakarraren kudeaketa integrala izanik eta Lezok ordea, bi instalazioen kudeaketa integralari izanik.

Bestalde, Orioko Udalak 199.026 € bideratzen ditu (Kirol Arloaren aurrekontuaren %27,98) kirol eragileekin elkarlanean aritzeko, kasu honetan kirol klubekin. Lezoko Udalak 62.300 € bideratzen ditu horretarako, %68,70 gutxiago.

Baliabide horien helburua erreferentziatzen hartuta, Oriok errendimendu-kirola eta ekitaldiak gehiago finantzatzen direla egiaztatzen da. Oriok errendimendu handiko taldeak ditu, baina Lezok ez.

Eskola-kirolean, Oriok eta Lezoren arteko alderaketa egitea ezinezkoa da, egiturari dagokionez oso desberdinak baitira. Oriok eskola kirola tokikoa den bitartean, Lezok eskualde egitura baten parte da Pasai, Oiartzun eta Errenteriako udalekin. Garrantzitsua da adieraztea Orioko partaidetza indizea handia dela (%89).

Eskola kirolera bideratutako baliabideei dagokienez, oso zaila da jatorria zehaztea. Baliabide publikoak beste alderdi batzuk jasotzen dituzten bi hitzarmenetan sartuta daude, eta akordio horien justifikazioak ez du zehazten zer diru bideratzen den eskola kirolera. Interesgarria litzateke egungo antolaketa ereduaren egokitasunari buruzko gogoeta bat planteatzea, bai eta lortu nahi den eszenatokiari eta beharrezkoak izango liratekeen baliabide propio eta publikoei buruzkoa ere.

Orioko tokiko kirol sistemak kirol jarduera osoa garatzeko behar dituen urteko baliabide ekonomikoak 2.071.524,17€ dira.

Baliabide ekonomiko publikoak 815.850,24€ dira, guztizkoaren %39,38, eta baliabide ekonomiko propioak 1.255.673,93€, guztizkoaren %60,62.

Baliabide ekonomiko propioak honako hauek dira:

Kirol agenteen baliabide propioak: %43,56

Kirol agenteen baliabide pribatuak: %23,34

Kirol instalazioen erabiltzaileen diru sarrerengatiko baliabideak: %33,10

Kontuan izan behar da zenbatu ez diren kirol eragileentzako baliabideen zati bat dagoela, adibidez, udal kirol instalazioen doako erabilera.

Egoera horrek, alde batetik, egonkortasun bat eskaintzen du, errendimendu handiko kirolaren finantzaketa eta iraunkortasun egokiaren oso baldintzapean. Eta, bestetik, kirol eskaintzaren kudeaketa eta kalitatea hobetzea, bai eta udal kirol instalazioetan herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak ere.

Beharrezkotzat jotzen da udalaren ekonomia eta kirol kudeaketa indartzea eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzera bideratzea eta egungo edo sor daitezkeen egitura berriak sendotzera, kirol eragileekin (klubak, ikastetxeak...) lankidetzan arituz arau aldaketetara eta baliabideak lortzera egokitzeko.

3. ATALA: ONDORIOAK

ONDORIOAK

Orioko egungo kirol sistemak banatuta ditu herriko kirol eragile nagusiek bete behar dituzten eginkizunak. Klubek eta Udal Kirol Zerbitzuak errendimenduaz eta lehiaketaz arduratzen dira, ekitaldiez gain; ikastetxeek eta Udal Kirol Zerbitzuak eskola kirola hartzen dute beren gain; eta Udal Kirol Zerbitzuak aisialdi kirola eta jarduera fisikoa lantzen ditu udal kirol instalazioen eskaintzaren bidez.

Kirol klubak eta ikastetxeak ondo identifikatuta, sozializatuta eta ezarrita daude Orioko udalerrian. Udal Kirol Zerbitzua identifikatuta egon arren, ez da tokiko kirol sistemaren erreferentzia. Egoera hori ez da oso eraginkorra, eta planak berak edo kirolaren bilakaerak eragin ditzakeen aldaketei erantzuteko zailtasunak izango lituzke. Hori dela eta, lehenengo jarduera arlo teknikoa egonkortzera bideratu beharko litzateke, kirol agenteen aurrean dituzten eginkizunak eta elkarriketak sendoagoak izan daitezen, tokiko kirol sistemaren etorkizuneko berrantolaketari eta ikuspegi demografikoei aurre egiteko.

Kiroltako Udal Zerbitzuan ezartzen den antolamendu funtzionalak kirol arlo tekniko bat aurreikusi beharko luke, gainerako udal arloekin elkarlanean eta koordinazioan aritzeko zerbitzu guztiak emanaz, egoera jakin batzuetan kanpoko laguntza teknikoa ematea baztertu gabe.

Lan honetatik eratortzen den udal kirol planak, behar bezala burutzeko, udaleko sailen eta identifikatutako kirol agente guztien esku hartzea jaso beharko du, kirolekoak ez diren agenteekiko lankidetzak publiko-pribatua ahaztu gabe.

Kopuru absolutuetan, Orioko 2,5 biztanletik 1 udalerriko kirol erakunde edo egitura bateko bazkidea, erabiltzailea edo kirolaria da. Datu horrek populazioan oso barneratze indize handia dagoela adierazten du.

Orioko kirol eragileen kirol eskaintza aberatsa eta askotarikoa da, inolako kolektiborekiko diskriminaziorik gabe, bai kirol modalitate eta diziplinetan, bai parte hartze motetan ere.

Eskaintza hori, klubak kasuan, errendimenduari zuzenduta dago ia eksklusiboki, bai denboraldiko lehiaketa arautuen bidez, bai urtean zehar kirol ekitaldi egonkorak antolatuz. Kirol klubak egitura jarduera jakin batzuetarako euskarri edo erreferentzia puntu hutsa da, eta ez du modu aktiboan parte hartzen eskola kiroleko jarduera programan, kirol irakaskuntzen esparruan izan ezik.

Kirol klubak baliabide ekonomiko gehienak, propioak eta publikoak, lehiaketa jarduerak egiteko eta kirol ekitaldiak antolatzeko erabiltzen dituzte, eta hirugarren mailan uzten dute aisialdiko jardueretarako arreta. Diru publikoaren ekarpenaren proportzioa, oro har, %30ekoa da. Baliabide ekonomiko propioak, %70, inskripzioetatik, kuotetatik, bazkideetatik, babesleztetatik eta publizitatetik datoz.

Eskola kirolean, kirol eskaintza askotarikoa da, eta antolaketa egitura ahula du ardatz; egitura horren bilakaerak zalantza ugari sor ditzake. Ildo horretan, eskola kirolaren eskaintzak bi sexuentzat kirol ibilbide tradizionalen jarraipena izatea erraztu egin beharko litzateke. Eskola kirolaren finantzaketa baloratzea oso zaila da, ez baitago datu ekonomiko frogagarriak.

Udal Kirol Zerbitzuaren kirol eskaintza aisialdirako eta osasunerako kirol zerbitzuekin lotuta dago. Udal Kirol Zerbitzuaren inbertsioaren autofinantzaketa % 43,52koa da.

Kirol eragileen jardueren finantzaketari buruzko balioak arrazoizkotzat jo daitezke. Baina eskola kirolaren kasuan, alderdi horri buruz hausnartu beharko litzateke, ez baitugu daturik. Finantzaketa publikoa eta haren xedea zehazteko kirol eragileekin hitzarmenak egitea, banaketa eta kontrol formula eraginkorra izan liteke.

Kirol klubek eta ikastetxeek ez dute, oro har, kudeaketa, kirol plana, giza baliabideen eta baliabide materialen kontratazioa, kidego teknikoaren beharrezko prestakuntza, komunikazioa, baliabide ekonomikoaren lorpena, aseguruak, genero-berdintasuna, euskara, mugikortasuna, ziurtagiriak lortzea, datuen babesa eta abar barne hartzen dituen proiekturik edo plangintzarik.

Kirol eragileen kudeaketa ekonomikoa indartzea eta bideratzea, egungo egiturak edo sor daitezkeen egitura berriak sendotzeko, askotan pertsonen harremanetan eta borondate onean oinarritutako sistemari mesede egin diezaioke.

Kirol klubek eta ikastetxeek aholkularitza eta orientazioa behar dute kudeaketaren arloan, beren kirol, ekonomia eta administrazio jarduerari dagozkienak, eta ez da baztertzen laguntza teknikoa ematea edo egungo egoera erregularizatzea ahalbidetuko duen irtenbide bat bilatzea, bai antolamenduari dagokionez, bai lan egoerari dagokionez. Hori dela eta, kirol-klubekin eta ikastetxeekin foro espezifikoak sortuz edo berraktibatuz gero, udalaren eta kirol-eragileen arteko elkarrikerak erraza izan liteke.

Material komun eta espezifikoaren funts edo gordailu bat (biltegiak) sortzea baloratu beharko litzateke. Kirol klubek beren jarduerak eta ekitaldiak antolatzeke eta garatzeko onurak izango lituzkete.

Orioko Udalak herritarren jarduera fisikoaren, eskola kirolaren, errendimenduaren eta aisialdiaren oinarritzko beharrak asetzeko kirol instalazioak ditu. Kirol instalazioen kudeaketa segurtasunak, mantentzeak, irisgarritasunak eta energia eraginkortasunak zehaztutako esparruan egin beharko da.

Udal Kirol Zerbitzuak instalazio guztiak kudeatu beharko lituzke, ez bakarrik helburu ekonomikoekin, baita gizarte eta kirol errentagarritasuneko helburuekin ere. Ez da zerbitzu publikoa izateko ikuspegia galdu behar, baina herritarrek jakin behar dute zerbitzuek, kasu honetan kirol zerbitzuek, kostu bat dutela, eta dagokion ordainketaren bidez ordaindu behar dela.

Ildo horretan, Arraunetxea herritarren erabilerara irekitzeak emango lukeen kalitate hobekuntza erabaki garrantzitsua da. Gastuan eta udal inbertsioan izango luke eragina. Bi instalaziotarako kudeaketa integraleko kontratu bat proposatu beharko litzateke (gaur egun Karela Kiroldegia baino ez da aurreikusten), baina partzialki erabiltzen diren eta jada mantentze eta garbiketa kostua duten kirol espazioak irekitzea ahalbidetuko luke. Baliabide materialetan eta ekipamenduan ere inbertitu beharko litzateke. Instalazioaren erabilera berrantolatuz gero, udalak eskaintzen dituen kirol jarduerak eta arraunari lotutako kirol klubaren eta erakundearen jarduerak bateragarriak izango lirateke.

Orioko kiroleko eta kirolaz kanpoko eragile guztien arteko koordinaziorik eta akordiorik eza egiaztatu da, eta egoera hori giza baliabideen optimizazioaren kalterako da (boluntarioak, kidego teknikoak,...), baita baliabide material eta ekonomikoen eta parte hartzearen kalterako ere. Adibidez, kirol klubaren eta ikastetxearen arteko akordiorik ez da egiaztatu.

Zaharren Babeslekuaren eta Osakidetzaren parte hartzea sustatzea, Orioko Udalaren eskutik, etorkizuneko tokiko kirol esparruan, osasun helburuak eta sedentarismoaren aurkakoak dituen jardueren fisikoaren sare egonkor eta sozializatzaile baten muina izan liteke. KOZak (Kirol Orientazio Zernitzuak) zeregin garrantzitsua izango luke prozesu honetan.

Udal planetan berdintasunaren, mugikortasunaren eta euskararen arloan aurreikusten diren zeharkako faktoreak bideragarriak dira horiek ezartzeko orduan, baldin eta etorkizuneko kirol planean zehazten den tokiko kirol sistemaren garapenaren berezitasunetara eta erritmora egokitzen badira.

Komunikazioaren ikuspegitik, agian, beharrezkoa izango litzateke Orioko kirol jardueren logotipo batekin identifikatzea eta txertatzea, udalak arlo horretan egiten duen jardueren ikusarazteko.

Amaitzeko, tokiko kirol sistemak bi desoreka ditu, bata udalaren antolaketan zentratzen da eta bestea eskola kirolaren antolaketan.

Gardentasuna eta komunikazioa beharrezkoak izango dira tokiko kirol sistema antolatzeke.